



Datuak eskuratzeari buruzko gidaliburua

**Energia Jasangarrirako
Ekintza Planak**
egiteko

2017ko Urtarrila



Co-funded by the Intelligent Energy Europe
Programme of the European Union

Datuak Eskuratzeari buruzko Gidaliburu hau –Energia Jasangarrirako Ekintza Planak egitera zuzenduta- DATA4ACTIONek prestatu du. DATA4ACTION Europar Batasuneko Energia Adimendunaren Europar Programaren kofinantziazioarekin eratu zen (diru-laguntza emateko erabakiaren zenbakia: IEE/13/368/SI2.675578).

Data4Actionen helburua da transferitu daitezkeen lankidetzaz-ereduak identifikatzea eta datu energetikoak eskuratzeko bideak erraztea agintaritzaren publikoei, Energia Jasangarrirako Ekintza Planak hobeto gauzatu eta monitorizatzeari begira.

Proiektuaren hasierako data: 2014ko martxoan

Proiektuaren amaierako data: 2017ko otsaila

Egilea: Carlow-Kilkenny Energia Agentzia

Bertsioa: 2016ko abendua

Entregagarri zenbakia: D6.6

Entregagarriaren izenburua: Datuak Eskuratzeari buruzko Gidaliburua, Energia Jasangarrirako Ekintza Planak egiteko.

Xedetzat hartutako taldea: Energia-plangintzaren bideratzaileak, hala nola energiaren eta BEGen behatokiaren teknikariak; Energia Jasangarrirako Ekintza Planak garatzeaz arduratzen diren tokiko agintaritzaren teknikariak.



Lege-oharra: argitalpen honen erantzukizuna bere egileena da soilik. Ez du ezinbestean islatzen Europar Batasunaren iritzia. Ez Enpresa Txiki eta Ertainen Agentzia Exekutiboak (EASME) eta ezta Europako Batzordeak ez dute erantzukizunik argitalpen honetan jasotako informazioaz egin daitezkeen erabileraz.

Aurkibidea

Datuak Eskuratzeari buruzko Gidaliburuaren sarrera	1
<i>DATA4ACTIONen kideen aurkezpena</i>	1
1: Ongi etorri Datuak Eskuratzeari buruzko Gidaliburura	3
<i>Baliabide Erabilgarriak</i>	4
2: Europar Esparrua	7
<i>Klima eta Energiaren 2030erako Esparrua</i>	7
<i>Karbono Gutxiko Ekonomia 2050erako</i>	8
<i>Esparruan ezarritakoa betetzea</i>	8
<i>Datu Energetikoak Eskuratzeari buruzko Gidaliburura</i>	8
3: Esparru Nazionala	9
<i>Udal instalazioen kontsumoa</i>	9
<i>Udalerriko kontsumitzaileen osoko kontsumoa</i>	10
4: Datuak Trukatzearen Erronka	13
<i>Datuen Trukea Hobetzea</i>	14
<i>Politikaren hobekuntzak</i>	15
5: Politikaren hobekuntzak	17
<i>Lankidetzaren ereduak</i>	17
<i>Lankidetzaren elkarrekin eragileak</i>	18
<i>Gobernantza-mekanismoak</i>	20
<i>Gomendatutako Lankidetzaren ereduak</i>	20
6: Energiaren eta Begen Emisioen Eskualdeko Behatokiak	23
<i>Zer da Energiaren Behatokia?</i>	26
<i>Energiaren Behatokiaren Garrantzia</i>	26
<i>ENERGee Watch Erakundearen Kideak</i>	28
<i>Energiaren Behatokiaren Tresnak</i>	31
7: Arrakastaren Faktoreak	33
<i>Agintaritza Publikoa</i>	33
<i>Plangintza Energetikoaren Bideratzaileak</i>	33
<i>Datu Energetikoen Hornitzaileak</i>	34
Eranskinak	37
1. Eranskina: <i>Termino Teknikoak</i>	38
2. Eranskina: <i>ENERGee Watch erakundeko kideak</i>	40


kW
Data Analysis



Green Energy

225
kW
Data Analysis



Water Consumption

5310
lt
Data Analysis



Datuak Eskuratzeari buruzko Gidaliburuaren sarrera


Gidaliburu hau Europako zenbait eskualdetako DATA4ACTIONeko kideek egin dute elkarrekin, Europar Batasuneko Energia Adimendunaren Europar Programaren laguntzarekin.

Kideen artean, Energia Jasangarrirako Ekintza Planak (EJEPak) garatzearen eta inplementatzearen bidez klima-aldaketari aurre egiteko lanean ari diren eskualdeko eta tokiko agintaritza publikoak, energiaren agentziak eta beste instituzio batzuk daude. Horiek guztiek helburu bera dute, alegia, energiari buruzko datu zehatzak eskuratzeko bideak erraztea, energia jasangarriaren alorreko neurriak hobeto planifikatzeari eta monitorizatzeari begira.

DATA4ACTION gidatzen duen erakundea Agence régionale de l'énergie et de l'environnement en Rhône-Alpes (RAEE) da, hots, Frantziako Auvernia Rhône-Alpes eskualdeko energia eta ingurumen agentzia.

DATA4ACTIONen kideen aurkezpena...



A person in a dark suit is shown from the chest up, holding a magnifying glass over a document. The document features a blue bar chart. The person's hand is visible on the left, holding the handle of the magnifying glass. The background is blurred, showing the person's face and hand near their chin.

**Jakin ezazu gehiago DATA4ACTIONi buruz,
gure argitalpenen liburutegia eta ekitaldiak
ere ezagutuz, gure webgunea bisitatuz:
www.data4action.eu**

1: Ongi etorri Datuak Eskuratzeari buruzko Gidaliburura

Energiari buruzko datuak funtsezkoak dira bai ekonomiaren lehentasunezko sektoreetan dauden joerak identifikatzeko, bai politika energetikoak bideratzeko eta bai eraginkortasun energetikoaren hobekuntza eta energia berriztagarrien hedakuntza segurtatzeko. Neurri horiek tokiko eta eskualdeko energia jasangarriari buruzko politika eta planetan txertatu daitezke, eta haien implementazioaren aurrerapena aldizka ikuskatu edo monitorizatu daiteke.

Gure Datuak Eskuratzeari buruzko Gidaliburua eragile hauentzat garatu da, lehentasunez:

Agintaritza Publikoak, tokiko datu energetiko zehatzak hobeto eskuratzeko bideak bilatzen ari direnak, energia jasangarriaren plangintzan erabiltzeko;

Plangintza Energetikoaren Bideratzaileak, agintaritza publikoen eta datu-hornitzaileen artean kolaboratzeko eredu aurreratuak garatzen lagundu nahi dutenak; adibidez: Eskualdeko Datuen Zentroa edo Energiaren Behatokia; eta

Datu Energetikoen Hornitzaileak, rol positiboa jokatu nahi dutenak Eskualdeko eta Tokiko Politika Energetikoen garapen eta implementazioan.

Espero dugu zuri laguntzea zure eskualdeko datu energetiko garrantzitsuenak eskuratzen, eta orientazioa ematea zure energiari buruzko politika, plan eta estrategietarako.

Gidaliburu hau gai hauetan izan daiteke lagungarria zuretzat:

- Datu energetiko fidagarri eta zehatzak identifikatzea eta eskuratzeko zure eskualde edo lurraldean.
- Irabazi-irabazi* moduko lankidetzak-ereduak garatu eta inplementatzea datu energetikoen trukearen alorrean.
- Eskualdeko datu energetikoen zentro bat eratzea, agintaritza publikoei datuen inguruko zerbitzuak eskaintzeko, energia jasangarriaren plangintzari begira.
- Datu energetikoan trukea sostengatzen duten politikak garatzea, agintaritza publikoei energia jasangarrien plangintzan laguntzeko.
- Energia Jasangarri eta Klimari buruzko Ekintza Plan (EJKEP) egoki bat garatzea eta ikuskatzea, zure eskualdeko udalerrri eta komunitateen beharrak islatzen dituzten plangintza energetikoko tresnekin.
- Eskualdeko eta tokiko interes-taldeekin kooperatzea zure planak prestatzeko eta monitorizatzeko faseetan, haien onarpena eta laguntza eskuratzeari begira, eta, hortaz, epe luze-rako onura neurgarriak bermatzeko zure lurralderako.

Baliabide Erabilgarriak

Energia Jasangarri eta Klimari buruzko Ekintza Plan bat prestatzen ari bazara zure eskualderako, badira prozesuan lagundu diezazuketen jarraibide egokien adibide ugari, prestatze-lan horren fasea zeinahi delarik ere. Geuk ondoren aipatutakoak gomendatzen ditugu, baina zerrenda horretan ez daude sartuta baliabide guztiak.



COOPENERGYk erakusten du, adibideen bitartez, nola kolaboratzen ari diren arrakastaz Europa osoko tokiko eta eskualdeko agintaritzak Klima eta Energia Jasangarriei buruzko goi mailako Ekintza Plan eta Ekimenen garapen eta aplikazioan.

www.coopenergy.eu



Klima eta Energiarako Alkateen Itunak (Covenant of Mayors for Climate and Energy) biltzen ditu EBko klima- eta energia-helburuak beren lurraldean eta beren borondatez bete nahi dituzten milaka Tokiko eta Eskualdeko agintaritzak. Kideen konpromisoa da CO₂ emisioak gutxienez % 40 murriztea 2030rako, eta, halaber, ikuspegi integratu bat hartzea klima-aldaketa moteltzeari eta aldaketa horri egokitzeari begira.

www.covenantofmayors.eu



DATA4ACTIONek azpimarratzen du datuak epe luzera trukatzeko ereduak duen garrantzia, energia jasangarriaren plangintzaren alorrean, agintaritzak publikoen eta datu energetikoen hornitzaileen arteko lankidetzaren bitartez.

www.data4action.eu

ENERGee Watch

ENERGee Watch Eskualdeetako Berotegi Efektuko Gasen Emisioen eta Energiaren Monitorizazioarako Europar Sarea da. Bere helburua da esperientziak trukatzeko eskualdeetako eta tokiko agintaritzak publikoen artean, energiaren eta berotegi-efektuko gasen alorrean; ildo beretik, erakutsi nahi du nola eratu daitezkeen Tokiko Behatokiak eta nola inplikatu daitezkeen tokiko interes-taldeak.

www.energee-watch.eu



MESHARTILITY (datuak neurtzea eta energia-konpainiekin trukatzeko, Klima eta Energiarako Alkateen Itunarentzat) proiektuaren helburua da datu energetikoak energia-konpainien eta tokiko agintaritzaren artean trukatzeko errazten duten irtenbideak eta tresnak garatzea.

www.meshartility.eu



50000&1 SEAPs proiektuak planteamendu koherente bat eskaintzen du Energia Kudeatzeko Sistemak eta Energia Jasangarrirako Ekintza Planak (EJEP) integartzeko, energia kudeatzeko estandarren arabera, hala nola ISO50001 arauari jarraituz.

www.50001seaps.eu



2: Europar Esparrua

2009ko martxoan, klima eta energia multzo batean biltzen zituen legedi lotesle bat onartu zen, 20-20-20 helburuak inplementatzeko. Lege-multzo horrek politika espezifikoak ezarri zituen helburu orokor horiek lortzeko, eta baita urteko helburuak ere BEGen emisioak murrizteko. Legedi hori oinarritzat hartuta, Klima eta Energiaren 2030erako Esparruak helburuak ezarri zituen urte horretarako.

Gaia	EB Zuzentaraua
Maila azpinazionalako plangintza energetikoa	2012/27/EB Zuzentaraua: Eraginkortasun Energetikoa 2009/28/EE zuzentaraua: Energia Berriztagarria
Kontsumoaren datuak eskuratzea	2012/27/EB Zuzentaraua: Eraginkortasun Energetikoa 2010/31/EB Zuzentaraua: Eraikinetako Errendimendu Energetikoa 2009/72/EB Zuzentaraua: Elektrizitate eta Gasaren Barne-merkatua 2009/73/EB Zuzentaraua: Elektrizitate eta Gasaren Barne-merkatua
Datuen bilketa EBko kideen aldetik	2012/27/EB Zuzentaraua: Eraginkortasun Energetikoa
Datuen Babesa	2002/58/EB Zuzentaraua: Pribatutasuna eta Komunikazio Elektronikoa 95/46/EE Zuzentaraua: Datu Pertsonalen Babesa
Ingurumen-datuak eskuratzea	2007/2/EB Zuzentaraua: Informazio Espazialerako Azpiegitura EBren eremuan

Adostutako helburu horiek lortzeari begira eskualdeko eta tokiko gobernuek jokatzeko duten funtsezko rola aitortuta, EB bere eskualde eta udalerrriak akuilatzen ari da klima-aldaketa moteltzeko eta hari egokitzeko estrategiak garatu eta inplementatu ditzaten, zenbait ekimen abiatzearen bidez. Bada, ekimen horietako bat Klima eta Energiarako Alkateen Ituna da.

Orokorrean, energiaren kontsumo eta ekoizpenari eta BEGen emisioei buruzko datuak nazio mailan biltzeko eta hedatzeko egiten ari den ahalegina ez da aski, edo ez da behar bezain zehatza, eskualde eta udalerriei laguntzeko euren estrategiak tokiko mailan definitzeko eta monitorizatzeko.

Klima eta Energiaren 2030erako Esparrua

EBko Klima eta Energiaren 2030erako Esparruak¹ hiru helburu nagusi ezartzen ditu urte horretarako:

1. BEGen emisioak gutxienez % 40 murriztea (1990eko mailak erreferentziatzat hartuta);
2. Energia berriztagarriek gutxienez % 27ko kuota izatea; *eta*
3. Energiaren eraginkortasuna gutxienez % 27 hobetzea.

¹ http://ec.europa.eu/clima/policies/strategies/2030/index_en.htm

EBko Klima eta Energiaren 2030eko Esparruak aurrera egin dezan karbono² gutxiko ekonomia bidean, eta horri lotutako gainerako helburuak ere lortu ditzan, garrantzitsua da tokiko erreferentzia fidagarri bat sortzea, bai aurrerapenak horren arabera neurtu ahal izateko eta bai eskualde eta tokiko politikak orientatzeko.

Gainera, toki eta eskualde mailako plangintza energetikoa ezinbestekoa da sistema energetikoari begira planteatu den helburua lortzeko, hau da, kontsumitzaile guztientzat eskuragarria den energia berriztatzea, EBko hornidura energetikoaren segurtasuna handitzea, energiaren inportazioekin dagoen mendetasuna jaitea eta hazkunde eta enplegurako aukera berriak sortzea. Horrenbestez, eskualdeko eta tokiko datu energetikoak biltzea eta aztertzea oso onuragarria izango da ingurumen eta osasunerako, batez ere aire-kutsadura murriztearen bitartez.

Karbono Gutxiko Ekonomia 2050erako

EBk epe luzerako helburu bat ezarri dio bere buruari, alegia, BEGen emisioak % 80-95 murriztea 2050 urterako, 1990eko emisioak erreferentziatzat hartuta. Energiaren 2050erako bide-orriak sistema energetikoaren trantsizioa esploratzen du, BEGen emisioak murrizteko helburua bateragarria izan dadin, aldi berean, horniduraren lehiakortasun eta segurtasunarekin.

2050erako ezarritako helburua Europako murrizketen bidez soilik lortzeko, EBk aurrerapen etengabeak egin behar ditu karbono gutxiko gizartera daraman bidean. Horrek esan nahi du Europako emisioak 1990ekoak baino % 40 txikiagoak izan behar direla 2030erako eta %

60 txikiagoak 2040rako. Beraz, sektore guztiek lagundu behar dute karbono gutxiko ekonomiarako trantsizioan, bakoitzak bere ahalmen teknologiko eta ekonomikoaren arabera.

Esparruan ezarritakoa betetzea

Klima eta Energiaren 2030erako Esparrua eta Karbono Gutxiko Ekonomia 2050 urtean lortzeko, beharrezkoagoa izango da energia jasangarrirako ekintza-plan adimendunagoak izatea eskualde eta toki mailan. Horretarako, berriz, datuak trukatzeko lankidetzazko prozesu eta tresnak ezarri eta optimizatu behar dira; adibidez: eskualdeko energiaren eta BEGen emisioen behatokiak. Behatoki horiek gai izango dira helburuak lortzen laguntzera zuzendutako politika eta planak diseinatzeke eta orientatzeko.

Datu Energetikoak Eskuratzeari Buruzko

Datu energetikoak eskuratzeari buruzko EBko Esparru Arautzailea funtsezko ikuspegi tematiko batzuetatik kontsideratu behar da, honako hauek barne:

1. Helburu energetiko nazionalak eta azpinazionalak;
2. Kontsumoaren datuak eskuratzeko bideak;
3. Datuen bilketa EBko Estatuaren aldetik;
4. Datuen babesa; *eta*
5. Ingurumenari buruzko datuak eskuratzeko bideak.

² http://ec.europa.eu/clima/policies/strategies/2050/index_en.htm

3: Esparru Nazionala

Nahiz eta jasangarritasun energetikoari buruzko udal planak ez diren nahitaezkoak Espainian –Frantzian, aldiz, bai dira nahitaezkoak udalerrri handietan–, tokiko entitate ugari parte hartzen dute Alkateen Itunean, Tokiko Agenda 21ean edo horrelako planak egitea eskatzen duten beste ekimen batzuetan. Berotegi-efektuko gasen emisioen inventarioak egiteko beharrezkoa den informazioa, hau da, energiaren kontsumo eta ekoizpenari buruzko informazioa, zenbait iturritatik eskura daiteke, eta horien artean energiaren hornitzaileak azpimarratu behar dira.

Sareko energiak (gasa eta elektrizitatea) banatu eta komertzializatzen dituzten enpresak ez daude behartuta udal mailako datu agregatuak ematera; hala eta guztiz ere, udal instalazioen datuak eta udalerriko kontsumitzaileen datu orokorrak eman ditzakete, borondatezko lankidetzarako akordiotan oinarrituta. Sarekoak ez diren beste energia batzuetarako, berriz, konplexuagoa da informazioa udal mailan eskuratzea, eta, hortaz, goitik beherako estimazioak (top-down) erabiltzen dira.

Espainian, merkatuaren % 5etik gorako kuota duten enpresa komertzializatzaileak 4 dira energia elektrikoaren kasuan eta 5 gas naturalaren kasuan. Nolanahi ere, komertzializatzaileen bezeroak ez daude geografikoki kontzentratuta, banaketa-enpresen bezeroak bezala; horregatik, enpresa horiek funtsezkoak dira sareko energiari buruzko informazioa udal mailan lortzeko, modu zentralizatuan. Energia elektrikoaren banatzaileen kopurua handia da, baina 5 enpresak kontsumo-puntuaren % 96 baino gehiago hornitzen dute; kasu gehienetan, enpresa bakar batek udalerrri oso bat hornitzen du, edo autonomia erkidego oso bat. Gas naturalaren kasuan, 4 enpresak lurraldearen % 99 hornitzen dute.

mo-puntuaren % 96 baino gehiago hornitzen dute; kasu gehienetan, enpresa bakar batek udalerrri oso bat hornitzen du, edo autonomia erkidego oso bat. Gas naturalaren kasuan, 4 enpresak lurraldearen % 99 hornitzen dute.

Udal instalazioen kontsumoa

- Udal instalazio bakoitzeko kontsumo energetikoari buruzko informazioa gero eta baliagarriagoa da ekintza planen jarraipena egiteko. Udalak kontsumoaren fakturretatik har dezake informazio hori, baina eraginkorragoa da datu horiek enpresa banatzailetik eskuratzea.
- Udal informazioa modu egokian biltzeko, beharrezkoa da ondo identifikatzea kontrolatu nahi diren udal instalazioetako kontsumo-puntuak (HPKU).
- Udalerrri ertain edo handi batean, instalazioek kontsumo energetikoko puntu ugari izaten dituzte. Orokorrean, enpresa banatzaileek eta komertzializatzaileek instalazioen kontsumoa aztertzeko eskaintzen dituzten tresnak ez dute zerbitzu nahikorik eskaintzen; horregatik, komenigarria da beste plataforma batzuk abiatzea kontsumoen kontrolerako.

Udalerriko kontsumitzaileen osoko kontsumoa

- Datuen babesaren edo sekretu komertzialaren ikuspuntutik ez da arriskurik identifikatu udalerrri bateko kontsumitzaileen kontsumo orokorra dibulgatzeko, betiere kontsumitzaile indibidualen datuak ezin identifikatu badaitezke. Beste alde batetik, enpresa banatzaileak ez luke eragozpenik planteatu beharko, eta, administrazioarekin duen harremana ona izanez gero, gardena izan beharko luke informazio agregatuari buruzko eskakizunen aurrean.
- Kontsumoaren informazioa sektoreen arabera banakatuta eskuratzeko, garrantzitsua da kontsumitzaile bakoitzaren banatzaileak kontsumoa modu egokian asignatu diezaiola ekoizpen-sektore jakin bati, EJSNaren (Enpresa-jardueraren kode nazionala) arabera arabera. Hori lortu ezean, estimazioak egitera jo beharko da. Gas naturalaren kasuan, adibidez, estimazio horiek kontratatutako tarifen arabera egin ohi dira.
- Erregaien hornidura banaketa-sareen birtartez egiten ez denean, zaila da udalerriko osoko kontsumoa ezagutzea. Hori gertatzen da garraioaren gasolio eta gasolinarekin, botilatan hornitutako petrolio-gas likidotuarekin, berokuntzarako gasolioarekin edo biomasarekin. Erregai horietarako, top-down hurbilpenak erabil daitezke, goragoko maila batean ezagutzen edo estimatzen den kontsumotik abiatuta, banaketaren adierazleak abiapuntutzat hartuta, hala nola biztanle, etxebizitza edo ibilgai-luen kopurua.

- Normalean, kontsumoak kalkulatzeko egiten diren top-down hurbilpen horiek ez dituzte islatzen udalek euren lurraldeko jasangarritasuna handitzeko egiten dituzten ahaleginak; horregatik, komenigarria da beste adierazle batzuen jarraipena egitea, alegia, energetikoak ez diren zeharkako adierazle batzuk erabiltzea, helburuen norabidean egindako aurrerapenak islatzeko.
- Autonomia Erkidegoetako eraikinen ziurtagin energetikoko erregistro administratiiboak informazio-iturri onak dira erabilitako erregaiak ezagutzeko; gainera, azterketa hori udal mailan egin daiteke.

Euskadiren kasuan, energia-iturri nagusietako informazioa jasotzen da modu koordinatuan, lhobe eta EEERen aldetik; informazio hori geroago lantzen da, jasangarritasun energetikoari buruzko ekintza planen diseinu eta jarraipenean aplika daitekeen informazioa eskaini ahal izateko udalerriei.

Udal mailako datu energetikoen eskuragarritasuna, Euskadirentzat aztertuta

Energia	Sektorea	Informazio-iturriak	Kalitatea
Elektrizitatea eta gas naturala	Udal eraikinak	Informazioa biltzea, fakturaz faktura. HPKU bakoitzaren informazioa eskatzen zaio banatzaileari.	Oso handia
PGL, gasolioa	Udal eraikinak	Informazioa biltzea, fakturaz faktura.	Handia
Elektrizitatea	Sektoreka	Banatzaileari informazioa eskatzen zaio, sektoreen arabera banakatuta.	Oso handia
Gas naturala	Sektoreka	Banatzaileari informazioa eskatzen zaio, sektoreen arabera banakatuta.	Ertaina-handia
Gasolina, A gasolioa	Garraioa	<i>Top-down</i> estimazioa, lurralde historikoetako datuetatik abiatuta. Lurralde horien informazio zehatza dago eskuragarri, ibilgailuei buruzko datuen bidez.	Ertainatxikia
C Gasolioa, PGL	Zerbitzuak eta etxebizitzak	<i>Top-down</i> estimazioa, lurralde historikoetako datuetatik abiatuta, ziurtapen energetikoaren datuak ere kontuan hartuta.	Ertainatxikia
Eguzki-energia termikoa	Zerbitzuak eta etxebizitzak	Estimazioa, diru-laguntzen eta eraikuntza berriaren datuak abiapuntutzat hartuta.	Ertaina
Biomasa	Etxebizitzak	Estimazioa, inkestak eta ziurtapen energetikoaren datuak abiapuntutzat hartuta.	Txikia
Fotovoltaikoa, eolikoa, hidraulikoa	Ekoizpen elektrikoa	Estimazioa, kapazitatea abiapuntutzat hartuta, ekoizle autonomoen erregistroen arabera.	Ertaina



4: Datuak Trukatzearen Erronka

Klima-aldaketa moteltzearekin lotutako erronka handi bat hauxe da: azkar eskuratu ahal izatea energia jasangarriari buruzko politikak eta planak toki eta eskualde mailan oinarritu ditzaketen datu energetiko fidagarriak.

Datu energetikoen jabe edo zaintzaile nagusiak honako hauek dira, besteak beste:

- 1. Agintaritza publikoak**, energiaren kontsumitzaile handiak diren aldetik;
- 2. Plangintza energetikoaren bideratzaileak**, hala nola eskualdeetako energiaren behatokiak eta instituzio akademikoak; *eta*
- 3. Datu energetikoen hornitzaileak**, hala nola energiaren ekoizle handiak, kontsumitzaileak, garraio sareen kudeatzaileak (GSKak) eta banaketa sareen kudeatzaileak (BSKak).

EBko zuzentzauek mugak dituzte ezarrita banakako datu pribatuak hirugarrenekin konpartitzeko; Energia jasangarrirako ekintza plan eraginkorrak eta horien monitorizazioa maila azpinazionalean egiteko beharrezkoak diren lurralde-datu agregatuei eta ez-identifikatzaileei dagokienez, aldiz, ez du ezer aipatzen, ezta definitu ere egiten.

EBko legedi-esparru nazional gehienetan ez dago inolako betebeharririk ezarrita GSK eta BSKentzat, tokiko datu energetikoak maila azpinazionaleko agintaritza publikoei eskuratzeari dagokionez. Horren ondorioz, datuen trukea borondatez soilik egiten da, ez legeak behartuta. Dena dela, Agintaritza publikoek, udalerriei laguntzen dieten eskualde eta probintzia mailako agintaritzek eta udalerrietako agintaritzek berek ere beharrezkoa dute datu energetikoak errazago eskuratzea.

Datuen Trukea

Europako GSK batzuk, hala nola Italiako ENEL, Frantziako ERDF eta Txekiar Errepublikako EON, jadanik konpartitzen ari dira euren lurraldeetako datu energetikoak udalerriekin, energia jasangarrirako plangintzari begira. Hori alderdien borondatez egiten ari da, eta GSKek adierazi dute oso beharrezkoa dela horri buruz duten rola hobeto definitzea.

Frantzian, energia jasangarrirako plangintzara zuzendutako lurralde-datu energetikoen trukea trantsizio energetikoari buruzko legedian dago txertatuta.

Datuen Trukea Hobetzea

Agintaritza publikoak, plangintza energetikoaren bideratzaileak eta datu energetikoen hornitzaileak biltzen dituen lankidetzazko ekintza lortzea zaila izan liteke, hainbat arrazoi direla medio. Hori ikusita, DATA4ACTIONek ohiko arazo batzuk identifikatu ditu eta gomendioak formulatu ditu arazo horiei heltzeko, interes-taldeen arteko datu truke eraginkorragoa lortzen laguntzeko xedez.

Konpromiso politikorik ez egotea

- Denbora eta baliabideak inbertitzea energia jasangarrirako plangintzaren beharraz gehiago kontzientziatzeko.
- Sostengu politikoa duen lankidetzazko egitura bat sortzea.

Eskuragarri dauden datuak gutxi edo kalitatea eskasekoak izatea

- Hasieran beharrezkoa izan daiteke hurbilpenak erabiltzea, gero horien ordeztan lankidetzazko ekimenak jartzea helburutzat hartuta.
- Beharrezkoa da datu-iturri alternatiboak identifikatzea. Garrantzitsua da datuen kalitatea modu independentean egiaztatzea eta aldizka ebaluatzea.

Lankidetzazko datuen hornitzaileen aldetik

- Datuen hornitzaileek lor ditzaketan onurak identifikatzea eta horiek komunikatzea.
- Datuak trukatzeko prozesua eta datuen formatua definitzea, datuen hornitzaileen lana errazteko.

Datu fidagarriak trukatzeko akordiorik ez egotea

- Datuen trukearen izaera, prozesua eta maiztasuna modu formalean adostu behar dira.
- Datu energetikoaren trukeak alderdi anitzeko akordioak eskatzen ditu.
- Irabazi-irabazi moduko lankidetzazko akordioak ezartzea datuen hornitzaileen eta agintaritza publikoen artean.

Eskualdeko Behatokiak ez egotea

- Eskualdeko behatoki bat eratu eta mantentzeak izan ditzakeen onurez kontzientziatzea.
- Konpromiso politikoa bilatzea eskualdeko behatoki berri bat eratzeko.
- Eskualdeko behatoki berri bat ezartzeak berrikuntza, inbertsioa eta denbora eskatuko ditu.
- Iraunkortasuna eta osotasuna behatokiaren arrakastaren funtsezko ezaugarriak dira, eta, hortaz, egitura berrietan txertatu behar dira.

Tresna, prozesu eta prestakuntzaren beharra

- Energia jasangarrirako plangintzaren arrakasta bultzatzea, plangintza hori sustatzearen bitartez.
- Tresna, prozesuak eta prestakuntza transferitzea beste leku batzuetako lankidetzazko esperientzia arrakastatsuetatik.

Politikaren hobekuntzak

DATA4ACTIONen kideek zenbait hutsune identifikatu dituzte politikaren alorrean, alegia, datu energetikoaren trukea hobetzeko EBn eta beraren Estatuetan bete behar diren hutsune batzuk. Hutsune horiek xehetasunez daude azalduta Data4Action-en argitalpen honetan: *'Politikari buruzko gomendioak: Datu Energetikoen Trukea hobetzea Energia Jasangarrirako Plangintza Eraginkorrerako, maila azpinazionalaletan'*³.

Politika hobetzera zuzendutako gomendio horiek jarraian ageri dira laburbilduta:

1. Energia jasangarriari buruzko legediek xedapen egokiak izan behar dituzte datu energetikoak eskuratzeko bidea agintaritza publiko guztiei errazteko;
2. EBko kide diren Estatuaren legedi nazionalak aitortu beharko luke datuak eskuratzeko duen garrantzia, energia jasangarrirako plangintza eskualde eta toki mailan egiteari begira;
3. EBko Estatuak datu energetikoen hornitzaileei (GSKak eta BSKak) zuzendutako xedapenak txertatu behar dituzte euren legedietan, hornitzaile horiek datu energetiko desagregatuak eskaini ditzaten, toki eta eskualde mailako energia jasangarrirako plangintzan erabil daitekeen formatu egokian;
4. EBko Estatuak argi utzi behar dute zein diren datu energetikoen hornitzaileak dituzten eskubideak eta betebeharrak, lurraldeko datu energetikoak agintaritza publikoari energia jasangarrirako plangintzarako hornitzeari dagokionez;
5. EBko Estatuak jardunbide egokiak sustatu eta sostengatu behar dituzte datuak eskuratzeko eta trukatzeko zereginean, energia jasangarrirako plangintzari begira. Neurri horiek barne hartu behar dituzte gardentasunerako arauak, datuen trukerako formatu estandarizatuak, eta datuen borondatezko trukerako ekimenen aldeko sostengua edo finantziazioa;
6. EBko Estatuak konfidentzialtasun-arauak argitu behar dituzte, datu agregatuak eskuratzeko bidea errazteko; *eta*
7. EBko Estatuak datu energetikoen hornitzaileak akuilatu behar dituzte datuak trukatzeko ekimenetan inplikatu daitezen, energiaren eraginkortasunaren alorrean dituzten betebeharren baitan.

³ www.data4action.eu/wp-content/uploads/2016/02/D4A__EU-Recommendations_vf.pdf



5: Lankidetzazko aliantza

Lankidetzazko aliantzaren ikuspegia funtsezkoa da energia jasangarrirako plangintzaren arrakastarako. Datuen trukea eraginkorra izan dadin, lankidetzazko praktikoak behar dira agintaritza publikoen, plangintza energetikoaren bideratzaileen eta datu energetikoen hornitzaileen artean.


Datu energetikoak eskuratzeari dagokionez, agintaritza publikoek bide hori oztokatzen duten erronka ugari gainditu behar dituzte. Arazo partikular bat da datuak iturri askotatik eskuratu behar direla euren energia jasangarrirako ekintza planak garatzeko eta monitorizatzeko.

Irabazi-irabazi moduko lankidetzazko aliantzak garatzea agintaritza publikoen eta datuen hornitzaileen artean –adibidez: zerbitzu energetikoen konpainiak (garraio sareen kudeatzaileak (GSKak) eta banaketa sareen kudeatzaileak (BSKak) barne sartuta)– lagungarria izango da datuen trukea errazteko eta energia jasangarrirako ekintza planak prestatzeko. Badira agintaritza publikoek eta plangintza energetikoaren bideratzaileek erabil ditzaketen lankidetzazko eredu batzuk, ondorengo atalean deskribatzen den bezala.

Lankidetzazko ereduak

Lankidetzazko aliantza soilak, datuen trukearen alorrean betidanik egon direnen modukoak, agintaritza publikoen eta datu energetikoen hornitzaileen arteko alde biko akordioak izaten dira, geroago ikus daitezkeen bezala.


Goian aipatutako ereduak datuen truke soilerako egitura bat eskaintzen du, baina berez ez da eraginkorra ez agintaritza publikoarentzat eta ezta datuen hornitzailearentzat ere. Hala, akordio bakoitza banan-banan negoziatu eta mantendu behar da. Horren ondorioz, gerta



liteke datuen hornitzaileak eskari ugari jasotzea agintaritza publiko desberdinetatik, akordioak egiteko, akordio bakoitza klausula desberdinekin eta datuen espezifikazio desberdinekin. Gisa berean, agintaritza publikoak hainbat akordio indibidual garatu, ikuskatu eta mantendu behar ditu datu energetikoen hornitzaileekin, energiaren plangintzarako behar dituen datu guztiak biltzeko. Akordio horiek dimentsio anitzekoak izan behar dute, berez, eta hainbat eragile inplikatu behar dituzte baldintza berdinetan.

Alderdi anitzeko akordioek, aldiz, badute ahalmena datuak trukatzeko akordio indibidualen ugalketak dakarren arazoari heltzeko, jarraian erakusten den bezala.

Eredu horretan, hirugarren alderdi batek leihatila bakarreko zerbitzuak eskaintzen ditu. Alderdi hori, adibidez, eskualdeko energiaren eta BEGen emisioen behatokia izan daiteke, eta bera arduratzen da lankidetzak-akordio guztiak eta datuak trukatzeko prozesua negoziatzeaz.



Hirugarren alderdia plangintza energetikoaren bideratzaile bat izan ohi da, eta betetzen duen zerbitzua da iturri askotako datu energetikoak bildu, integratu eta prozesatu, horren ostean agintaritza publikoari eskuratzeko formatu estandarizatu, ulergarri eta irisgarri batean. Eredu horrek agintaritza publikoetatik hirugarren alderdi espezializatu batera pasatzen du datuen trukeari buruzko akordio konkretuak lortzeko ardura, eta, aldi berean, datuen trukearen eraginkortasuna handitzen du datuen hornitzailearentzat.

Eskualdeko datuen zentroak / energiaren eta BEGen emisioen behatokiak eskualde bakoitzeko egoerari egokituta diseinatu eta eratzen dira. Dena dela, badira hainbat ezaugarri estruktural komun, hala nola:

- ❑ Ikuspegia konpartitua duten datu-hornitzaileak eta agintaritza publikoak

biltzen dituen tokiko partzuergo batek gobernatutako egiturak dira;

- ❑ Eskualde mailako agintaritza publikoen sostengua (Ituneko lurralde-koordinatzaileak) dute;
- ❑ Sarritan integratuta egoten dira jadanik eratuta dauden eskualdeko erakundeetan, hala nola energiaren agentzietan eta agintaritza publikoetan. Batzuetan konbinatu egiten dira aire eta uraren kalitaterako eratuta dauden monitorizazio-erakundeekin;
- ❑ Plangintza energetikoarekin eta datuak eskuratu eta prozesatzearekin zerikusia duen prestakuntza teknikoa integratzen dute, eta baita dimentsio anitzeko aliantzen kudeaketa ere; eta
- ❑ Lurralde mailako datuak eta zerbitzuak ematen dizkiete agintaritza publikoari (dohainik).

Eskualdeko Datuen Zentroak

Europar badira eskualdeko datuen zentro eta behatoki ugari, agintaritza publikoen sostenguearekin. Agintaritza horiek modu estuan lan egiten dute datuen hornitzaileekin eta energiaren agentziekin, datu energetikoen alorreko zerbitzuak tokiko agintaritzeari dohainik eskaintzeko. Gainera, DATA4ACTIONen bidez beste hamabi eskualdeko datuen zentro garatzen ari dira Europan.

Lankidetzak-erakundeetako aktoreak

Agintaritza publikoek, oro har, lan-esperientzia handia izaten dute lankidetzak-erakundeekin. Alabaina, gutxik dute esperientzia positiboa

erakunde komertzialekin modu proaktiboan lan egiten. Era berean, sektoreak araudi-emaile bezala baino ez ditu ikusten agintari publikoak, oro har.

Bestalde, energia-plangintzaren agente erraztaileak askotan aritzen dira lankidetzan agintari publikoekin, ikerketa-erakunde akademikoekin eta energia-sistemen kudeatzaileekin (ESK), garraio-sareen kudeatzaileekin (GSK) eta banaketa-sareen kudeatzaileekin (BSK).

Energia-datuen hornitzaileak askotarikoak izaten dira, eta haien profila, hein handibatean, dena delako eskualdeak energia eta klima-aldaketaren inguruan dituen lehentasunek zehazten dute. Energia-datuen hornitzaileak eta bakoitzak dituen datu-iturriek definitzen dute datuak elkarri emateko lankidetzaredua. Taula honetan, beharren eta datu-iturrien adibide batzuk eskaintzen dira:

Jarduerak	Beharrezko datu-mota	Datu-iturrien adibideak
<i>Erreferentziako isurien inbentarioak (EII) eta monitorizazioko isurien inbentarioak (MII) garatzea</i>	Energia-kontsumoa sektorearen arabera (etxebizitzak, zerbitzuak, garraioa, industria, nekazaritza, eraikin publikoak eta ekipamendua).	<ul style="list-style-type: none"> • Energia kudeatzeko sistemak; • Energia-zerbitzuen enpresak: Garraio-sistemen operatzaileak, banaketa-sistemen operatzaileak, energiaren txikizkako energia-saltzaileak • Estatistika-bulegoak; • Ministerioa (garraioa, energia, etab); • Estatistika-bulego nazionalak eta eskualdeetakoak; • Industrien elkarteak; • Airearen kalitatea babesteko elkarteak; • Energia berriztagarriko sistemen ekoizleen elkarteak.
<i>Ekintza eta energia-politika jasangarrien definizioa</i>	Aurreztuko den energiaren estimazioak, BEGen murrizketa eta inbertitutako zenbatekoa.	<ul style="list-style-type: none"> • Adierazle sozioekonomikoak (sortutako lanpostuak, erregai-pobreziaren gaineko eragina); • Energia-zerbitzuen enpresak; • Estatistika-bulegoak; • Energia-zerbitzuen enpresak; • Etxebizitzen elkarteak; • Profesionalen elkarteak; • Kontsumitzaileen elkarteak; • Tokiko inkestak; • Neurketa adimendunak.
<i>Monitorizazioa (aurrerabideen araberako adierazleak eta erreferentziako isurpen-inbentarioak)</i>	Energia jasangarriaren planaren ebaluazioa egiteko aukera emango duten adierazleetan oinarritutako aurrerapena (ad: bidegorri kilometroak, urteko bidaiari publikoen kopurua).	<ul style="list-style-type: none"> • Aurreko guztiak barne hartzen dituzten datu-iturri ugari, eta ikerlan estatistikoak.

Gobernantza-mekanismoak

Agintaritza publikoen, energia-plangintzaren agente erraztaileen eta energia-datuen hornitzaileen arteko elkarte batentzat, garrantzitsua da gobernamentu-mekanismo egokia hautatzea.

Elkarteak giltzarri diren harreman batzuek zuzentzen dituzte.

Harremana	Maila egokia
Maila handia (akordio-txostenak eta zerbitzu-mailako akordioak)	Funtsezko bazkideak
Formalak	Zuzendaritza-batzordea, koordinazio-batzordea, etab.
Semiformalak	Talde teknikoa, laguntza-sareak, etab.

Gomendatutako Lankidetzak-ereduak

DATA4ACTIONeko kideek ondorengo gomendio nagusiak garatu dituzte toki eta eskualde mailako plangintza energetikoa sostengatzera zuzendutako aliantzak diseinatzeke eta eraikitzeke:

- Pazientzia izan, eta poliki-poliki irabazi kide estrategikoen eta eragile nagusien konfiantza;
- Modu progresiboan jardun; hobe da orain lehenengo datu multzo bat izatea etorkizunean datu multzo ugari izatea baino;
- Sostengu instituzionala ez da nahikoa, beharrezkoa dena **inplikazio aktiboa** da;
- Helburutzat hartutako talde garrantzitsuetara zuzendutako marketina: adibidez, *'Behatokia da egon beharreko lekua'* –baina segurtatu datu energetikoen hornitzaileek lor ditzaketan onurak azpimarratzen direla, hala nola;
 - Datuen fluxua hobetzeak operazio-kostu merkeagoak ekarriko ditu;
 - Protokoloak adostuko dira informazio sentikorra komertzialki babesteko; *eta*
- Produktu eta zerbitzu eredu berriak sortu litezke;
- Funtsezko eragileak inplikatu eta prozesuaren partaide bihurtu. Adibidez: 'datu ofizialak' balidatzen direnean;
- Zuzendu ezazu arreta plangintza energetikoaren (etorkizuneko) beharretara, baina baita funtsezko eragileei eta helburutzat hartzen diren taldeei ere;
- Erreaktiboa izan eta lankidetzak aitortu: erakutsi ezazu hornitutako datuak erabilgarriak direla;
- Adimenez jokatu: erabil ezazu datu fidagarrienak, ofizialak ez izan arren;
- Gardena izan: informa itzazu erregulartasunez zure eragileak eta helburutzat hartzen dituzun taldeak;
- Kontuan hartu merkatu energetikoen liberalizazioak zailago bihurtzen duela kontsumo energetikoari eta berotegi-efektuko gasen emisioei buruzko datu fidagarriak eskuratzeko;
- Inplika itzazu eskualdeko energiaren agentziak energiaren hornitzaileekin kooperatzen hasterakoan;
- Har ezazu kontuan toki mailako datuen kalitatea eskasa izan litekeela eta hobetu egin beharko litzatekeela. Aurkeztu ezazu hori tokiko agintariak eta datu energetikoen hornitzaileek elkarrekin gauzatu behar duten zeregin bezala, hau da, horien arteko lan bateratu bezala;
- Kooperatu ezazu datu gehiago eskain ditzaketan nazio eta eskualdeko instituzioekin;
- Pertsona egokia(k) kontaktatu datuen hornitzaileen administrazioan/plantillan;
- Erabil itzazu jadanik existitzen diren eta ondo funtzionatzen duten tresnak eta metodoak;
- Inplika itzazu helburutzat hartzen dituzun taldeak/eragileak eta horiekin batera diseinatu datuak trukatzeko prozesua; *eta*
- Kontsidera ezazu datuen hornidura talde hartzailearen/datuen hornitzailearen ikuspuntutik, planteatu litezkeen gaiak bideratzeko, hala nola konkurrentzia eta konfidentzialtasuna.

Udalsarea 21 eta Euskadiko Tokiko Jasangarritasunaren Behatokia

Tokiko Jasangarritasunaren Behatokiaren kudeaketaz lhobe arduratzen da, Udalsarea 21 jasangarritasunerako udalerrien euskal sarearen Idazkaritza Teknikoa den aldetik. Behatokiaren oinarria informatika-aplikazio bat da, tokiko ekintza-planek eta Euskadiko jasangarritasunaren adierazleek emandako informazioa biltzen duena.

Aplikazio horri esker, udalek Tokiko Agenda 21en prozesuaren kudeaketa bateratua egin dezakete, tokiko jasangarritasun-politiken gauzatze-maila ebaluatzeko eta adierazleak kalkulatzeko. Aldi berean, plataforma erabiliz, Udalsarea 21en Idazkaritza Teknikoak, hau da, lhobek eduki hori bistartzeko aukera dauka eta, gainera, hainbat iturritatik (erakunde publikoak eta hornitzaile pribatuak) modu zentralizatuan jasotzen dituen ingurumen-datuak eta datu sozial eta ekonomikoak eman ditzake.

Behatokia plataforma global bat da, adierazleen kalkuluen emaitza eta udalerrri bakoitzak sustatutako tokiko ekintza-planen ebaluazioa integratu, gainbegiratu eta interpretatzeko. Datu-base zabal eta baliagarri hori baliatuz, Udalsarea 21ek **Euskadiko tokiko jasangarritasun-txostena** prestatu eta argitaratzen du bi urtean behin, lortutako emaitzak zehaztu eta interpretatzeko. Txosten hori tokiko prozesuetarako feedback bezala ere erabil daiteke, udaleko arduradunek erreferentzia bezala erabil ditzaketen batez besteko balioak ematen baititu. Hala, informazioa bateratu eta trukatzeko tresna bat izateaz gain, tokiko jasangarritasun-politikak ebaluatzeko aukera ematen du.

Behatokiak funtziona dezan, beharrezkoa da partekatutako metodologiak erabiltzea, esate baterako tokiko jasangarritasunaren adierazleen sistema komun bera aplikatzea Euskadiko udalerrri guztietan, edo metodologia bateratu bat izatea tokiko ekintza-planen ebaluazioa eta jarraipena egiteko. Gainera, garrantzitsua da Behatokia nazioarteko beste politika, plataforma edo ekimenekin lerrokatzea. Metodologia partekatu horiek Udalsarea 21en esparruan garatu direnez, sareko kideek errazago ezagutu eta aplikatu dituzte (udalerrriak eta udalerriaz gaineko beste administrazioa batzuk).

Behatokiak 24 arlori buruzko informazioa dauka, lau multzotan sailkatuta: ingurumeneko alderdiak, alderdi sozialak, alderdi ekonomikoak eta gobernamentua. Sailkapen horrek Euskadiko Tokiko Agenda 21en izaera transbertsala ahalbidetzen du, udalerrien egoera ezagutzeko askotariko informazioa neurtu eta emateko helburuz.

www.udalsarea21.net



6: Energiaren eta BEGen Emisioen Eskualdeko Behatokiak

Europar Batasuna klima-aldaketaren aurakako borroka globala gidatzen ari da, eta lehen tasun nagusizat hartu du borroka hori. EBko herrialdeek klima eta energiari buruzko Esparru berri bat adostu dute 2030 urterako, eta hor helburuak ezarri dira EB osoaren politikarako, 2020 eta 2030 urteen arteko aldirako. Helburu horiek⁴ lagungarriak izan nahi dute EBk sistema energetiko lehiakorragoa, seguruagoa eta jasangarriagoa lortu dezan eta berotegi-efektuko gasen emisioak epe luzera -2050- murrizteko helburuak bete ditzan.


Agintaritzaren publikoek eta energiaren alorreko interes-taldeek helburu zail horiek lortzen laguntzeko konpromisoa hartu dute. Energiaren eta berotegi-efektuko gasen emisioen eskualdeko behatokiak espezifikoki diseinatu daude tokiko egoera monitorizatzen eta interpretatzen laguntzeko, eta, horren ildotik, erabaki politiko estrategikoak fidagarritasunez orientatzeko.

Gero eta agintaritzaren publiko gehiago daude inplikaturik energia jasangarriko politika eta planen garapenean. Gehienak hasten dira erreferentziako emisioen inbentario (EEI) bat sortzen, jarduera-eremu egokienak eta CO₂ emisioei buruzko adostutako helburua lortzeko aukerak identifikatzeko. Horren ostean, energia plan bat garatzen da, emisioak murrizteko neurri konkretuak definituz; horrekin

batera, epeak zehaztu eta ardurak asigantzen dira, epe luzerako politika estrategikoak ekintza espezifikotik konkretatzeko.

Agintaritzaren publikoak onartzen duen garapen-proiektu berri bakoitzak emisioen maila hobetzeko aukerak sortzen ditu. Horrelako aukera bat galtzearen inpaktua esanguratsua izan daiteke eta luzerako iraun dezake. Horregatik, energia planak segurtatzen du aukera horiek azkar identifikatzen direla, eta proiektuak zuzentzen dira tokiko CO₂ emisioak eta sektore publiko eta pribatuko azkeneko erabiltzaileen kontsumo energetikoa benetan murriztera.

Energia jasangarriko plangintzaren funtsezko faseak behean azaldutakoak dira.



⁴ 2030rako helburuak honako hauek dira: BEGen emisioak % 40 murriztea, 1990eko mailak erreferentziatzen hartuta; energia berriztagarrien kontsumoaren kuota gutxienez % 27 izatea; eta gutxienez % 27ko aurrezpen energetikoa lortzea kontsumoaren oraingo egoerarekin alderatuta.

Aztergai dugun alorrean, sarritan espero izaten dugu agintaritza publikoek rol eredugarria jokatzeko, beren eraikin, instalazio eta ibilgailuei zuzendutako neurriak inplementatzearen bidez –energia jasangarrirako plangintzak barne hartzen du eraginkortasun energetikoarekin zerikusia duten ekintzak gauzatzea udal eraikinetan eta tokiko ekoizpen elektrikoan, hala nola panel fotovoltaikoak, energia eolikoa eta sorkuntza bateratuko plantak (CHP) jartzea, tokiko sorkuntza energetikoa hobetzea, eta tokiko berokuntza/hozkuntza instalazioak izatea. Sarritan, gainera, agintaritza publikoek eragin positiboa izan dezakete kontsumo energetikoan, honelako ekintzen bidez: lurzorua erabileraren plangintza egokia; mugikortasun ez-motorizatua sustatzea; produktu eta zerbitzu energetiko eraginkorren merkaturaren sostengatzea; eta kontsumo-ereduak aldatzea, komunitateko interes-taldeekin lan egitearen bidez.

Energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokiak funtsezko rola jokatu behar dute klima eta energia jasangarriari buruzko ekintza plan eta politikaren garapenean, eta baita horiek komunitatean dituzten inpaktu globalen neurketan ere. Energiaren behatoki bat garatzeko eta mantentzeko beharra hiru interes-taldeen ikuspegietatik argudiatu daiteke, hots, horietako bakoitzaren ikuspegitik.

Agintaritza Publikoa:

- ❑ Behatokiak beharrezkoak diren datu balidatuak eskaintzen dituzte energia jasangarrirako politika edo planak eskualde edo toki mailan bideratzeko;
- ❑ Behatokiak eskaintzen dituzte eskualde edo toki mailan ezarritako politikak monitorizatzeko beharrezkoak diren datuak.
- ❑ Behatokiak badute gaitasuna datuen bilketa eta hornidura hedatzeko, gisa bereko datu energetikoak datu-iturri berberetatik bilatzen dituzten agintaritza publiko ugarien artean; *eta*

- ❑ Behatokiak lagungarriak izango dira eskualdeetako datu-iturri eta metodologia desberdinak harmonizatzeko, nazioek eta EBk beren txostenetan erabiltzen dituzten estandarrekin konpara daitekeen datu-eredu bat sortuz.

Plangintza Energetikoaren Bideratzaileak:

- ❑ Behatokiak bilduko duten jakintza bidez, lankidetzaren sinergiko bat sortuko da eragile guztien artean, batez ere agintaritza publikoaren eta industriaren artean;
- ❑ Behatokiak alderdi interesatuen sareak sortzera joko dute, bai euren eremu geografikoaren baitan eta bai Europako beste eremu batzuekin; *eta*
- ❑ Behatokiak tresna berriak garatzeko eta metodologia berriak identifikatzeko aukera eskainiko diete plangintza energetikoaren ikertzaileei, klima-aldaketari tokiko testuinguruan aurre egiteari begira.

Datu Energetikoen Hornitzaileak:

- ❑ Datu energetikoen hornitzaileek probetxua aterako diote behatokiari; izan ere, agintaritza publiko askoren aldetik datuei buruz jasotzen dituzten eskari berdintsuak homogeneizatuko ditu, eta, hortaz, behatokiak murriztu egingo du hornitzaile horien lan-karga;
- ❑ Behatokiak datuen kudeaketan daude espezializatuta. Espezialista bakar batekin tratatzeak segurtatuko du datu energetikoen hornitzailetik datorren informazioa modu profesional eta koherentean prozesatuko dela, erabilerarako adostutako baldintzekin eta datuak hedatzeko metodoekin bat etorritik; *eta*
- ❑ Datuen trukerako lankidetzaren eredu aurreratu baten bidez behatokiarekin aritzea lagungarria izan daiteke datu energetikoen hornitzailearen gizarte-erantzukizunerako.

Albako Energiaren Behatokia - ANERGO

ANERGO – Albako Energiaren Behatokia 2015eko uztailean abiatu zuen, ALEA - Albako Tokiko Energia Agentziaren barneko egitura gisa. Egitura hori irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, EEA Programaren bidez 2008an eratua, helburutzat hartzen duena Errumaniako Alba Konderriko garapen jasangarriari laguntzea, bai energiaren eraginkortasuna eta kudeaketa hobetuz eta bai energia-iturri berriztagarrien erabilera sustatuz.

Tokiko agintaritzek eta datu energetikoen hornitzaileek lankidetzak-akordioak sinatu zituzten ANERGOrekin, datu energetikoen trukea errazteko tokiko agintaritzek eta zerbitzuen hornitzaileen artean –sektore hauetakoak: energiaren banaketa, garraio publikoa eta beste batzuk-.

Behatokiaren eraketa DATA4ACTIONen laguntzarekin egin zen, zeren honek jarri baitzituen behatokia eratzeko eta funtzionatzeko beharrezkoak ziren finantza-baliabideak. DATA4ACTION-EBk finantzatzeko proiektu honen baitan, ALEAk Rhône-Alpes eskualdeko energia agentziaren laguntza izan zuen, beronek eskainitako tutoretza-jardueren bitartez. Gaur egun, ALEAk eta ANERGOk Alkateen Itunaren 15 sinatzaile bano gehiagori laguntzen diete euren EJEpen garapen eta inplementazioan, Alba Konderritik kanpo dauden udalerrri batzuk ere barne sartuta.

Eskualdeko BEGen emisioak orokorrean murrizten laguntzeko eta energia berriztagarrien ekoizpena udalerrietan sustatzeko, behatokiak bi xede nagusi ditu: alde batetik, datu energetikoak eskuratzeko bidea erraztea Tokiko Agintaritzeari, Energia Jasangarrirako Ekintza Planak hobeto inplementatu eta monitorizatu ahal izateko; eta, bestetik, parte-hartze publikoa prozesu horretan sustatzea.

www.anergo.alea.ro

Zer da Energiaren Behatokia?

Energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokiek leihatila bakarreko zerbitzua eskaintzen dute energiarekin zerikusia duten datu eta informaziorako.

Eskualdeetako Energia eta Berotegi-efektuko Gasen Emisioen Behatokiek leihatila bakarreko zerbitzua eskaintzen dute energiarekin zerikusia duten datu eta informazioetarako.

Europako behatoki gehienak tokiko edo eskualdeko egituren bidez gobernatzen dira, eta egitura horietan zenbait agintaritzak publiko, datu energetikoen hornitzaile edo beste interes-talde batzuk egon daitezke ordezkatuta.

Normalean, behatokiek agintaritzak publikoak sostengua izaten dute, eta batzuetan aurretik existitzen ziren eskualdeko egituretan integratzen dira, hala nola energiaren agentzietan edo eskualde edo tokiko agintaritzak batean. Horrek sinergiak sortzen ditu eta goi mailako prestakuntza teknikoak biltzen du alor hauek: datuen bilketa eta azterketa; aliantzen kudeaketa; eta energia jasangarrirako plangintza.

Orokorrean, eskualdeko behatokiak lagungarriak dira ulertzeko zer-nolakoak diren eskualde eta udalerriek klima-aldaketan dituzten inpaktuak, erreferentziarako datu eta informazioaren inbentario bat garatzearen bitartez.

Eskualdeko behatokiek eskaintzen dituzte politikak garatzerakoan eta erabakiak hartzeko prozesuan funtsezkoak izan daitezkeen jakintza eta aholkularitza. Halaber, klima-ekintzaren inpaktua ebaluatzeko mekanismo bat ere ekantzen du, bai energiaren aurrezpenari dagokionez eta bai saihestu diren BEGen emisioen maila eta motari dagokienez.

Normalean, behatokiek BEGen emisioei eta kontsumo energetikoari buruzko datuak eskaintzen dituzte, gehienetan dohainik, emisioen murrizketak toki eta eskualde mailan izandako aurrerapenak neurtzeko xedez. Gainera, behatoki batzuek zerbitzu hori osatzen dute energiari eta jasangarritasunari buruzko planen monitorizazioarekin, ekintzak zer neurritan inplementatzen diren ebaluatzeko.

Eskualdeko energiaren eta BEGen emisioen behatokiek legezko betekizun guztiak bete behar dituzte, EBko zuzentarauak eta horiek nazio mailan izandako transposizioak barne sartuta. Arauak betetzeak segurtatuko du operazioek ez dutela talka egiten legedi nazionalarekin, hala nola datuak eskuratzeari buruzko legearekin.

Energiaren Behatokiaren Garrantzia

CO₂ emisioak eta azkeneko erabiltzaileen kontsumo energetikoa murriztea ohiko helburu bat izaten da energia jasangarria planifikatzeko prozesuetan. Eskualdeko planek barne hartuko dituzte, ezinbestean, bai sektore publikoa eta bai sektore pribatua inplikatzen dituzten ekintzak.

Datu energetikoak eskuratzeko bidea ematen du energia jasangarrirako ekintza planak eta ebidentzietan oinarritutako politika esanguratsuak eta zehatzak toki eta eskualde mailan garatzeko. Gainera, plan edo politikaren inplementazioari egotzi ahal zaizkion aldaketak neurtzeko tresna dinamiko bat izateak indartu egiten du energiari buruzko ekintza plan edo politiken arrakastaren monitorizazioa. Horregatik, oso garrantzitsua da datu zehatzak puntualtasunez eskuratu ahal izatea.

Eskualdeko behatokiek informazioa trukatzeko zentro gisa funtzionatzen dute, hau da, datu gordinen fluxuak prozesatu ditzakete BEGen egoera eskualde mailan islatzen duten profil zehatz eta erregularrak sortzeko. Gainera, bildutako datuak erabil daitezke da-

6: Energiaren eta BEGen Emisioen Eskualdeko Behatokiak

Agintaritza Publikoak	<p>Klima-aldaketaren alorreko gaiei heltzeko betebeharra duten Agintaritza Publiko guztiei onuragarria irudituko zaie eskualdeko energia behatoki batekin lan egitea. Energiarekin zerikusia duten gaiei buruzko aholkularitza teknikoa eskaintzeaz gain, behatokiak energiaren eta BEGen erreferentziatzko emisioen inbentarioak eskaini ahal izango dituzte, toki eta eskualde mailan. Hori energia planen abiapuntua da, eta irizpideak eskaintzen ditu plan edo politika esanguratsuen inplementazioaren aurrerapena ebaluatzeko.</p> <p>Orokorrean, agintaritza publikoak energia kontsumitzaile esanguratsuak izaten dira, forma askotan; beraz, eskualdeko behatokiarekin batera lan egitea lagungarria izan daiteke energia kontsumoa murriztu lezaketen estrategiei buruzko erabakiak hobeto orientatzeko.</p>
Plangintza Energetikoaren Bideratzaileak	<p>EBk hartutako konpromisoekin bat datorren helburu berdintsuak izan arren, energiaren behatokiak aurretik existitzen ziren egituren barnean garatu dira, edo haien garapena erraztu duten askotariko egituretatik abiatuta. Batzuk tokiko edo eskualdeko gobernuen zuzeneko ekimenen bidez sortu dira, eta beste batzuk interes akademiko edo sektorialen bultzadari esker.</p> <p>Behatoki guztiek lankidetzaren sare sendoak izaten dituzte beren oinarrian. Eskualde batek ez badu Behatokirik eta horrelako erakunde bat sortu nahi badu, funtsezko abiapuntu bat da lankidetzaren bilatzea datu energetikoen hornitzaile nagusiekin, eta, halaber, konpromiso politikoa bilatzea eta eskualdeko funtsezko interes-taldeen sostengua segurtatzea, industria eta instituzio akademikoak barne sartuta.</p>
Datu Energetikoen Hornitzaileak	<p>Datu energetikoak funtsezkoak dira eskualde eta toki mailako energia jasangarrirako plangintza inplementatzeko eta monitorizatzeko. Datu energetikoen hornitzaileen artean askotariko interes-taldeak egon arren, horien guztien ildo komuna da energiaren sorkuntza, banaketa eta kontsumoari buruzko datuak zuzenean eskuratzeko bidea eskaintzen dietela agintaritza publikoei, hauek plangintza energetikoa egin ahal izan dezaten.</p> <p>Eskualdeko datu energetikoen hornitzaileen artean, honako hauek sartzen dira: energiaren kontsumitzaile nagusiak, energiaren hornitzaileak, eta energia garraiatzeko eta banatzeko sistemen kudeatzaileak. Horien izaera eta kopurua aldatu egingo dira eskualde batetik bestera.</p> <p>Betidanik, energiaren hornitzaileek barne-helburuetarako erabili izan dituzte datu energetikoak, baina hori aldatzen ari da poliki-poliki. Energiaren desarauketa, zerbitzu energetiko integratueterako aukera berriak eta klima babesteko interes globalaren hazkundea dira datuak trukatzeko lankidetzaren eredu oinarriak jarri dituztenak.</p> <p>Energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokiarekin batera lan egitearen bidez, datu energetikoen hornitzaileei negozio aukera berriak sortu ahal izango zaizkie. Izan ere, agintaritza publikoekin harreman hobe eta estuagoa izatea -datuak trukatzeko lankidetzaren sistemen bidez- lagungarria izan daiteke hornitzaileek gizarte- eta ingurumen-jardunbide korporatibo arduratsuak sustatu ditzaten; horri esker, herritarren aldetik duten onarpenera hobetu dezakete eta bezero berriak lortu.</p>

tu-joerak sortzeko, eta, beraz, kontsumo eta ekoizpenaren bilakaera denbora aldetik identifikatzen laguntzeko. Hori lagungarria da politika eta planak toki mailan orientatzeko, eta baita funtsezko interes-taldeak ere orientatzeko, energiaren ekoizleak, kontsumitzaileak eta agintaritzak publikoak barne sartuta.

ENERGee Watch Erakundearen Kideak

Energiaren eta BEGen Emisioen Eskualdeko Behatokiaren Europar Sarea, ENERGee Watch, helburu honekin eratu zen: berotegi-efektuko gasen emisioen monitorizazioarekin, klima-aldaketa moteltzeko politikekin eta gobernantzarekin zerikusia duten jardunbide egokiak garatzea eta hedatzea.

ENERGee WATCHen bitartez, energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko hogeita hamar behatoki inguru biltzen zituen sare bat eratu zen. Behatoki bakoitzak datu energetikoak trukatzeko erronkari heltzen dio, irtenbide praktikoekin. Zehazki, behatoki guztiek energiari eta BEGen emisioei buruzko datuak helarazten dizkiete agintaritzak publikoak, energia jasangarriaren alorreko plangintza eta horren inplementazioa eta monitorizazioa bideratzen laguntzeko. Kasu gehienetan, behatokiaren elementu komunen artean honako hauek daude:

- ❑ Energia jasangarriaren eta klimaren alorreko gaien inguruko onarpen politiko zabala lortzea eta horri buruzko kontzientziazioa bultzatzea.
- ❑ Aliantza operatiboak ezartzea datu energetikoen hornitzaile ugariarekin.
- ❑ Datuak eskuratzeko, prozesatzeko eta modelizatzeko bideak eskaintzea.
- ❑ Datuak kudeatzeko zerbitzu teknikoak eta datuen zehaztasuna egiaztatzeke zerbitzuak eskaintzea.
- ❑ Adostutako metodologiak erabiltzea eskualdeko eta tokiko BEGen emisioak neurtzeko, nazioartean onartutako estandarrak oinarritzat hartuta.

- ❑ Europako eta nazioarteko ekimenekin kolaboratzen laguntzea.
- ❑ Erreferentziazko emisioen inbentarioak eskaintzea.
- ❑ Emisioak monitorizatzeko inbentarioak eskaintzea.
- ❑ Datu esanguratsuak komunikatzea agintaritzak publikoak eta herritarrei.
- ❑ Aurrerapenak islatzen dituzten adierazleak argitaratzea.

Behatoki horiek eskaintzen dituzten lankidetzaz-zerbitzuen artean, helburu hauek dituztenak sartzen dira (ez ditugu guztiak aipatzen):

- ❑ Energiarekin zerikusia duten gaiei buruzko eztabaida toki mailan bultzatzea.
- ❑ Energia kontsumoari buruzko profilak prestatzea (berokuntza, argindarra eta energia).
- ❑ Profil sektorialak prestatzea (industria, nekazaritza eta beste batzuk).
- ❑ Energia jasangarriari eta klima-aldaketari buruzko ekintza planak eta beste plan garrantzitsu batzuk prestatzea.
- ❑ Politika energetikoari buruzko aholkularitza eskaintzea.
- ❑ Airearen kalitateari buruzko eta orokorrean jasangarritasunerako ekintza planak bultzatzea.
- ❑ Energia berriztagarri berriak ikertzea, eguzki-panelak barne sartuta.

ENERGee Watch eta DATA4ACTIONen babespean eratu diren eskualdeko behatoki guztiek elkarlana garatu dute nazio, eskualde eta toki mailako datu-hornitzaileekin, eta espezializazio tekniko egokia dute energiarekin zerikusia duten datuen bolumen handiak tratatzeko, horren bidez energiaren ekoizpen eta kontsumoari buruzko estimazioak toki mailan egiteko. Kasu batzuetan, behatokiak BEGen eskualdeko inbentarioak ere lantzen ari dira.

Ondorengo mapak Europako eskualdeko behatoki batzuk aurkezten ditu, batez ere ENERGee Watch-en kide direnak.

6: Energiaren eta BEGen Emisioen Eskualdeko Behatokiak

Erakundeak eta behatokiak

- 4 ALEA - Alba Local Energy Agency - ANERGO
- 5 ARENE Ile-de-France - ROSE Ile-de-France Regional Observatory
- 6 Auvergne Rhône-Alpes Region - OREGES Rhône-Alpes Regional Observatory
- 7 Barcelona Metropolitan Area - METROBS - Metropolitan Climate Change Observatory
- 8 Carlow Kilkenny Energy Agency - Energyhub.ie
- 9 EAP - ROECC Observatory for Energy, Environment and Climate
- 10 EAZK - Energy Agency of the Zlin Region
- 11 Energikontor Norr - Energiluppen
- 12 EVE - Basque Country Energy Agency - EVE, Ihobe - Basque Local Sustainability Observatory (Udalsarea 21)
- 13 IRE Liguria - Banche Dati Ambienta in Liguria
- 14 Kent County Council - Environment Department
- 15 Metropolitan City of Torino - Osservatorio Energia Città Metropolitana di Torino
- 16 Provence-Alpes-Côte-d'Azur Region - ORECA
- 17 Région Centre-Val de Loire - LIG'AIR
- 18 Région Centre-Val de Loire - OREGES Centre-Val de Loire
- 19 Region Bourgogne Franche Comté - OPTTEER, Franche-Comté Regional Observatory
- 20 Region Bourgogne Franche Comté - ALTERRE
- 21 Region Hauts de France - Observatoire Climat Nord Pas de Calais
- 22 Réunion Island Observatory - SPL Energie Réunion
- 23 Technical Chamber of Greece Energy Observatory

Sareak

- 1 FEDARENE
- 2 Climate Alliance
- 3 ICLEI Europe

Beste erakunde batzuk

- 24 AEEPM Bucharest Energy and Environment Agency
- 25 AMEMM - Maramures Energy Agency
- 26 Cyprus Energy Agency
- 27 EREN - Castilla y Leon Region, Energy Department
- 28 BSREC - Black Sea Research Energy Centre
- 29 CODEMA - City of Dublin Energy Management Agency
- 30 Diputación de Barcelona
- 31 Energy Agency Malardalen
- 32 ILSpA - Infrastructure Lombarde- Energy Agency of Lombardia Region
- 33 Medway Council
- 34 Province of Savona
- 35 Province of Treviso
- 36 Regional Council of Corsica



Agentzia eta Behatokiaren kontaktu-datuak eranskinean ikus daitezke.

Liguria Eskualdeko Energia eta Ingurumenaren Datu-basea

Liguria Eskualdeko Energia eta Ingurumenaren Datu-basea 1997an sortu zen eskualdeko balantze energetikoak prestatzen laguntzeko. Balantze horiek arlo partikular bakoitzaren energia-fluxuak dira, eta gai hauei buruzko datuak eskaintzen dituzte: energiaren ekoizpen eta transformazioa, energiaren azkeneko kontsumoak eta CO₂ emisioak.

Azkeneko kontsumoen datuak funtsezkoak dira erreferentziako emisioen inbentarioa –BEI- prestatzeko, energia jasangarrirako ekintza planak garatzera zuzendutako lehenengo urrats gisa. Energiaren behatokiak datu sektorial hauek eskain ditzake:

- Udalerrikoak
- Etxebizitzetakoak
- Hirugarren sektorekoak
- Argiteria publikoa
- Garraiobide pribatuak
- Energia berriztagarrien iturriak

Eta energia-iturri haueik buruzko datuak:

- Gas naturala
- Elektrizitatea
- Diesela (berokuntzan eta garraioan erabilia)
- PGL
- Gasolina
- Biomasa
- Biogasa
- Energia hidraulikoa
- Energia eolikoa
- Energia fotovoltaikoa
- Eguzki-energia termikoa


Gaur egun, 'Covenant of Mayors App' (Alkateen Ituna App) izeneko tresna berri bat garatzen ari da. Tresna horrek erreferentziako emisioen inbentarioak (EEI) eta emisioak monitorizatzeko inbentarioak (EMI) sortzen ditu automatikoki, behatokiak datuak eta agintaritzak publikoek zuzenean eskainitako datuak oinarritzat hartuta. Horren ondorioz, eskualdeko behatokiak fidagarritasuna hobetu egingo da.

www.banchedati.ambienteinliguria.it

Energiaren Behatokiaren Tresnak

Nahiz eta ez dagoen europar estandarrik energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokiak erabiltzen dituzten tresnetarako, bada informazioa biltzeko, prozesatzeko eta hedatzeko lana oinarritzen duen prozesu komun bat.

Goian aipatutako energiaren behatokiaren tresnak definitzerakoan, kontuan hartu da informazioa eta datuak eskatzen dituzten eragileen eta orokorrean jasangarritasunerako ekintza. Gehienbat, hori determinatzen duena izaten da klima eta energia jasangarritasunerako ekintza planak orientatzeko beharra eta horri lotutako betekizunak.





7: Arrakastaren Faktoreak

Lankidetzaren eredu baliotsuak sortzeko, badira arrakastari begira kontuan hartu behar diren zenbait faktore. Faktore horiek agintaritzaren publikoaren, plangintza energetikoaren bideratzaileen eta datu energetikoen hornitzaileen ikuspuntuetatik begiratu daitezke.

Agintaritzaren publikoa

Energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatoki batekin kolaboratzea lagungarria izango da segurtatzeko energia jasangarri-rako ekintza planak bat datozela EB, estatu, eskualde eta toki mailako betekizunekin, eta maila anitzeko gobernantza indartuko du.

Energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokiaren lanak bideratu dezakeen goi mailako laguntza akademikoak oso potentzial handia eskain dezake metodologia sofistikatuagoak eta zehatzagoak garatzeko, datu energetikoen fluxuak bildu, aztertu eta proiektatzeari begira.

Alor politikoaren baitan, berriz, plangintza energetikoaren prozesuak oinarritzera zuzendutako datu energetiko zehatzak eskuratzeko beharrezko kontzientzia zenbat eta handiago den, orduan eta potentzial handiagoa dago energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokiaren hazkunderako, tamaina eta ahalmen aldetik.

Plangintza energetikoaren bideratzaileak

Plangintza energetikoaren bideratzaileak energiaren toki eta eskualdeko behatokiak eratu eta mantentzen dituzten agentziak dira. Tokiko agintaritzaren eta datuen hornitzaileen arteko zubi moduan funtzionatzen dute, haien arteko hutsunea betetz.

Behatokiaren arrakasta ahalbidetzen duten ezaugarri nagusien artean, honako hauek aipatu behar dira:

Gobernantza Onaren Printzipioak: Gobernantza definitu daiteke erakunde jakin baten orientazio, eraginkortasun, monitorizazio eta erantzukizun orokorrak segurtatu dezaketen sistema eta prozesuen multzo bezala,

Energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokiak partzuergo gisa osatutako egiturak izan daitezke, agintaritzaren publikoaren eremuaren baitan, zeren hainbat motatako alderdi interesatuak inplika baititzaizkete. Horren ondorioz, aliantza moduko lankidetzari eusteko ahalmena izan behar badute, eta barneko egitura egonkor eta egokiak izan behar dituzte. Beraz, erakunde horien gobernantza onaren printzipioen artean honako hauek egon daitezke.

Gardentasuna:

1. Sinesgarritasun eta konfiantza publikoa mantentzeko;
2. Loturak sendotzeko erakundearen eginkizuna betetzen laguntzen duten interes-taldeekin;
3. Energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokiaren asmoa hobeto ulertarazteko; *eta*
4. Eraginkortasun energetikorako ekintzen, jasangarritasunaren eta energia berriztagarrien beharrezko inguruko kontzientzia osoa areagotzeko.

Erantzukizuna, energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokiak hau egin ahal izan dezan:

1. Interes-taldeen defentsan jardutea, zehapenen bitartez –adibidez– edo bestelako metodo zuzentzaileen bitartez, planifikatutako jarduerak abiatzeko;
2. Abiatutako jarduerak interes-taldeei azaltzea eta horri buruzko informazioa ematea; *eta*
3. Interes-taldeen beharrak eta ikuspuntuak kontsideratzea eta horiei erantzutea, jardunbideak aztertuz eta –behar izanez gero– berrikusiz.

Parte-hartzea: Guztien berdintasunezko parte-hartzea gobernantza onaren zutabeetako bat da. Energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokiaren arrakasta honela frogatzen da:

1. Tokiko inplikazioa bultzatuz eta tokiko beharrak aitortuz;
2. Datuen trukea bultzatuz, lankidetzazko aliantzen bitartez;
3. Inklusiboak izanik;
4. Banakako iritzia eta ikuspuntuak babestuz; *eta*
5. Irekiak, kontrolagarriak eta gardenak diren egitura malguak sortuz.

Estandar Etikoak: Datu eta informazio sentikorrek tratatuko direnez, energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokiaren estandar etikoak funtsezko printzipio hauetan oinarritu behar dira:

1. **Inpartzialtasuna eta independentzia:** Behatokiak inpartziala eta independentea izan behar luke, eta edozein motatako lehentasunezko harremanak saihestu.
2. **Zintzotasuna:** Behatokiak etikoki eta zintzotasunez jarduteko konpromisoa izan behar du, hau lortzeko:

- ❑ Emandako datuak eta argitaratutako txostenak gezurrezkoak ez direla edo errealitatea mozorrotzeko diseinatuta ez daudela segurtatzeko;
- ❑ Behatokiaren lanarekin talka egiten duten edo talka egin lezaketan kanpo-interes guztiak agerian uzteko.

Datu energetikoen hornitzaileak

Datu energetikoen hornitzaileekiko lankidetzak iraunkorrak izan behar du, modu garbian, eta legezko akordioetan oinarrituta egon behar da; adibidez: akordiorako memorandumak eta zerbitzuei buruzko legezko akordioak.

Akordioek definitu behar dituzte garraio sareen kudeatzaileen eta banaketa sareen kudeatzaileen betebeharrak, eta baita beste datu-hornitzaile batzuenak eta energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokiaren ere, trukatzeko diren datuen ezaugarri, zehaztasun eta maiztasunari dagokienez; ezarri behar dute, halaber, datuen desagregazioa eta zehaztasuna eskualde, nazio eta Europa mailan gidatzen dituzten estandarrak onartzeko betebeharra ere. Horrez gain, datuen erabilera gidatzen duten baldintzak eta informazioaren desagregazio maila ere modu garbian definitu behar dira.

Rhône-Alpes Eskualdea - OREGES

Rhône-Alpes Eskualdeko Energiaren eta BEGen Emisioen Behatokiak (OREGES) energiaren kontsumo eta ekoizpena eta BEGen emisioak monitorizatzen ditu eskualde eta azpieskualde mailan.

Datuak komunitate mailan dira eskuragarriak, teknikoki eta legalki posible den neurrian, konfidentzialtasunaren betekizunak bete behar direla kontuan hartuta.

Behatokiak datu energetikoak eskaintzen dizkie dohainik tokiko agintaritzeari, eta baita energia eta klimaren profilak deskribatzen dituzten informazio-fitxak ere. Energia eta klimaren profilak aurreneko aldiz -2010- argitaratu zirenez geroztik, OREGESek aldizka eguneratu egin ditu, datu berriak gehituz eta aurkezpena zein edukia hobetuz gero eta gehiago.

Nazioko eta eskualdeko mailen arteko ikuspegi konpartitua, aliantza eta koordinazioaren hobekuntza hartzen dira behatokiaren emaitza nagusitzat. Horrek eraman du, zuzenean, BEGen monitorizazioari buruzko jakintza teknikoa hobetzera.

Lan egiteko akordio bateratu bat lortu arte, lankidetzaren prozesu luze bat izan zen beharrezkoa. Akordio hori da, hain zuzen ere, OREGES egituraren zutabe egonkorra. Horren froga da egiturak arrakastaz funtzionatu egin duela hamarkada batez baino gehiagoz. Aliantzaren arrastaren funtsezko faktore bat sektore energetikoko enpresen inplikazio sakona izan da, zeren horrek erraztu baitu datuen fluxu esanguratsuak eskuratzeko bidea.

www.oreges.rhonealpes.fr/



Eranskinak

1. Eranskina: **Termino teknikoak**

Iturria: www.data4action.eu/glossary/

Erreferentziazko emisioen inbentarioa

Erreferentziazko emisioen inbentarioa da energiaren kontsumoaren eraginez Itunaren sinatzaile baten lurraldean erreferentziazko urte batean isuri den CO₂ kantitatea. Inbentario honek ahalbidetzen du CO₂ emisioen iturri nagusiak identifikatzea, eta baita iturri bakoitzean lor litezkeen murrizketak ere identifikatzea.

Datuen sentikortasun komertziala

Datuen sentikortasun komertziala kontzeptuak adierazten du datu batzuen hedakuntzak galera edo irabazi ekonomikoak sorlitzakeela informazioarekin zerikusia duen pertsonarentzat, edo pertsona horren posizio lehiakorrari kalte egin liezaiokeela bere lanbide edo negozioaren kudeaketan edota bere zereginen.

Datuen kudeaketa

Datuak kudeatzeko jarduerak dira datuak biltzeko, prozesatzeko, modelizatzeko eta hedatzeko lanaren faseetan gauzatutako jardura guztiak. Datuak kudeatzeko jardura horiek beharrezkoak dira energia jasangarrirako ekintza planak definitzen, inplementatzen edo monitorizatzen laguntzeko.

Datuen pribatutasuna eta erregulazioa

Informazioaren hedakuntza eragozteko xedez edozein alderdik hartu behar dituen zuhurtasun-neurri guztiak (konfidentzialtasun akordioak, datuen babesa –adibidez: enkriptazioaren bidez–, eta abar).

Datuen kalitatearen azterketa

Datu energetikoan kalitatea aztertzea eta datu horiek erabakiak hartzen dituzten eragileei jakinaraztea funtsezko elementuak dira energia jasangarrirako ekintza plan eraginko-

rrak inplementatzeko eta monitorizatzeko. Komunitatearen alorrean, datu energetikoen kalitatea kanpo-faktore ugariaren eraginpean egon daiteke (hala nola biztanle kopuruaren aldaketak eta hazkunde ekonomikoa), eta horrek eraman dezake joera eta faktore determinatzaileak gaizki aztertzerara.

Datu energetikoen hornitzailea

Datu energetikoen hornitzaileak edo datuen iturriak plangintza energetikora zuzendutako datuak helarazten dizkie agintaritza publikoei. Datu energetikoen hornitzaileak edo datuen iturriak honako hauek dira, besteak beste: zerbitzu energetikoen enpresak (garrario sareen kudeatzaileak, banaketa sareen kudeatzaileak eta energiaren txikizkako saltzaileak), estatistika agentziak, etxebizitzaren eremuko elkarteak, industriaren elkarteak, airearen kalitatea babesteko erakundeak eta energia berriztagarrien ekoizleen elkarteak.

Emisioen monitorizaziorako inbentarioa

Emisioen inbentarioa, ezarritako helbururantz egindako aurrerapenak neurtzeko xedez tokiko agintaritzak egina.

Energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokia

Energiaren eta BEGen emisioen eskualdeko behatokia egitura bat da, edo jadanik existitzen den erakunde batean espezifikoki sortutako sail bat, zeregin hau duena: datu energetikoen hornitzaileek ematen dituzten datuak aldizka biltzea, prozesatzea eta energiari eta BEGen emisioei buruzko datuak dohainik helaraztea eskualdeko eta tokiko agintaritzei edo komunitateei, energia jasangarrirako plangintza egiteari begira. Normalean, egitura horrek ezaugarri hauek izaten ditu:

- Tokiko partzuergo batek gobernatzeko du (partzuergo horretan, datu energetikoen hornitzaileak eta tokiko agintaritza publikoak egoten dira sartuta).
- Agintaritza publikoen sostengua izaten du, eta sarritan aurretik existitzen ziren

eskualdeko erakundeetan egoten dira integratuta (adibidez: energiaren agentziak edo agintaritza publikoaren sailak).

- ❑ Badute prestakuntza teknikoak datuak biltzeko, aztertzeko eta prozesatzeko lanean, aliantzen kudeaketan eta plangintza energetikoan.
- ❑ *'Datu komunitarioak'* eta datuen zerbitzuak eskaintzen dizkiete, dohainik, eskualde eta tokiko agintaritza publikoei eta komunitateei. Zerbitzu horien artean, honako hauek daude:
 - ❑ Nazio, eskualde eta toki mailako hornitzaileek emandako datu gordinak prozesatzea (agregatzea edo desagregatzea) eta modelizatea.
 - ❑ Datuen iturriak eta datuak komunikatzeko tresnak identifikatzea, energia jasangarrirako ekintza planen monitorizaziorako.
 - ❑ Lankidetzak-akordioak diseinatzea eta inplementatzea datu energetikoen hornitzaileekin, eskualde berean kokatutako hainbat agintaritza publikori laguntzeko (biderkatze-efektua).
 - ❑ Energiaren erabileraren eta BEGen emisioen profilak aldizka eguneratzea, eskualde eta toki mailako estimazioak egiteari begira, erreferentziazko emisioen inbentarioa eta emisioak monitorizatzeko inbentarioa oinarritzat hartuta.

Eskualdeko plangintza energetikoaren bideratzailea

Bideratzaile hauek eskualdeko energiaren agentziak, Klima eta Energiarako Alkateen Itunaren eskualdeko koordinatzaileak, eskualdeko energiaren estatistika bulegoak, datuez arduratzen den agintaritza publikoaren saila, edo energia jasangarrirako plangintza-aren aholkulariak izan daitezke, baina euren izaera zeinahi delarik ere funtsezko rola jokatzen dute datu energetikoen hornitzaileen eta agintaritza publikoen arteko lankidetzak prozesua bideratzeko eta antolatzeke lanean. Badute gaitasuna datuen zerbitzuak inplementatzeko eta sostengurako egituren eraketa sustatzeko (adibidez: behatokiak).

Energia jasangarriari eta klimari buruzko ekintza plana

Energia jasangarriari eta klimari buruzko ekintza plana (EJKEP) Alkateen Itunaren sinatzailearen funtsezko dokumentu bat da, hor adierazten baitu nola lortu nahi duen CO₂ emisioak 2020rako murrizteko ezarri duen helburua. Helburuak lortzera zuzendutako jarduerak eta neurriak definitzen ditu, eta baita epeak eta ardurak ere. Itunaren sinatzaileek badute askatasuna euren EJKEParen formatua aukeratzeko, Itunak EJKEPetarako ezarritako dituen jarraibideekin bat datorren bitartean.

2. Eranskina: **ENERGee Watch** erakundeko kideak

Gaur egun, ENERGee Watchek hogei kide baino gehiago ditu (eskualdeko behatokiak, eskualdeko kontseiluak, eskualdeko eta tokiko energiaren agentziak, Europako eta nazioarteko sareak), Europako 11 herrialdetan.

ENERGee Watcheko sareak

Sarea	Deskribapena
 <p>Climate Alliance Galvanistr. 28 Fráncfort del Meno, Alemania www.klimabuendnis.org/</p>	<p><i>'Europako Hirien eta Oihan Tropikaletako Herri Indigenen arteko Klimaren Aliantza'</i> oihan tropikaletako klimaren babes eta zaintzarekin konprometitutako hirien sare handiena da.</p> <p>1990az geroztik, Klimaren Aliantzak Europako 20 herrialdetako 1.600 kideri baino gehiagori lagundu die beren karbono dioxidoaren (CO₂) emisioak murrizteko helburua betetzen, eta, hortaz, euren borondatez hartutako konpromisoa betetzen: emisioak ehuneko hamar murriztea bost urtero, per capita emisioak erdira jaisteko 2030 urterako, beranduz jota (1990 erreferentziazko urtetzat hartuta).</p> <p>Oihan tropikalak zaintzeko xedez, Klimaren Aliantzak oihan tropikaletako herri indigenekin kooperatzen du.</p>
 <p>FEDARENE 210 avenue Louise, Brusela, Belgika www.fedarene.org</p>	<p>FEDARENE da energiari eta ingurumenari buruzko politikak inplementatu, koordinatu eta bideratzen dituzten eskualde eta tokiko erakundeen lehenengo europar sarea.</p> <p>Alor horietan lan egiten duten eskualdeko eta tokiko agentziak, ministerioak eta sailak ordezkaturata daude sarean. FEDARENE irabazi-asmorik gabeko erakunde bat da, 1990ean eratu zena Europako sei eskualderen ekimenez. Gaur egun, Europar Batasuneko hamazazpi herrialdetako eskualdeak ditu bere kideen artean.</p> <p>FEDARENEk europar proiektu askotan parte hartzen du (besteak beste: Alkateen Ituna eta Managenergy). Halaber, ENERGee-Watch sortzera eta abiatzera eraman zuen Climact Regions europar proiektuaren partaidea da.</p>
 <p>ICLEI Europa Leopoldring 3, Friburgo, Alemania www.iclei-europe.org/</p>	<p>ICLEI – Jasangarritasunaren aldeko Tokiko Gobernuen Sarea (ICLEI) 1990ean eratu zen (Tokiko Ingurumen Ekimenetarako Nazioarteko Kontseilu gisa) bere inaugurazio-konferentzian: Etorkizun Jasangarriaren aldeko Tokiko Gobernuen Munduko Batzarra, Nazio Batuen Erakundearen New Yorkeko egoitzan.</p> <p>ICLEI garapen jasangarriaren aldeko konpromisoa hartu duten tokiko gobernuen eta nazio / eskualde / toki mailako gobernu-erakundeen nazioarteko elkarte bat da.</p> <p>ICLEIren kideak mundu osoko 1.200 hiri, herri, konderrri eta haien elkarteak dira. Kopurua gero eta handiagoa da, eta 200 Europan daude kokatuta.</p> <p>ICLEIk tokiko gobernu horiekin eta beste askorekin lan egiten du, jardunean oinarritutako eta emaitzetara orientatutako kanpaina eta programen bitartez, hobekuntza nabariak lortzeko hirietako ingurumen-garapen jasangarri globalaren alorrean.</p>

ENERGee Watcheko Behatokiak

Behatokia	Deskribapena
 <p>ANERGO Str. Trandafirilor, 9 Alba Iulia, Errumania www.anergo.alea.ro/</p>	<p>ANERGO 2015eko uztailean eratu zen, ALEA – Albako Tokiko Energiaren Agentziaren barneko egitura gisa.</p> <p>Behatokiak Alba konderriko tokiko agentziei eskaintzen dizkie bere zerbitzuak, eta badu asmoa Errumaniako Centru garapen-eskualdera ere hedatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Tokiko agintaritzei laguntzea Alkateen Itunari atxikitzen eta EEI/EMlen baldintzak betetzen; <input type="checkbox"/> Datu energetikoak eskuratzea erakundearen kide diren tokiko agintaritzei; <input type="checkbox"/> Udalerriko online datu-baseak erakundeko kide diren tokiko agintaritzentzat; <input type="checkbox"/> Datu energetikoak prozesatzea/egokitzea Alkateen Itunaren EEJKEP eta plangintza energetikorako; <input type="checkbox"/> Kontsumo energetikoaren azterketak, tokiko agintaritzen eskarrietan oinarrituta; <input type="checkbox"/> Tokiko eta eskualdeko joera energetikoak, eta horien inguruko informazioa; <input type="checkbox"/> Kontsumo energetikoari buruzko online txostenak, banakako erabiltzaileentzat.
 <p>ARENE Ile-de-France Eskualdeko Behatokia 90-92 avenue du Général Leclerc, Paris, Frantzia www.roseidf.org/</p>	<p>ROSE Ile de France – Eskualdeko Energiaren eta Berotegi-efektuko Gasen Emisioen Behatokia 2008an eratu zen.</p> <p>ROSE Ile de France inplikaturatuta dago klimari buruzko eskualde-planaren garapenean, eta datuak eskuratzen ari zaizkie Paris eskualdeko tokiko agintaritzei, haien lurraldeko energia- eta klima-plana orientatzeko.</p> <p>Behatokiak honako alderdi hauek monitorizatzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Energiaren azkeneko kontsumoa, energiaren ekoizpena (batez ere iturri berriztagarrietatik datorrena) eta energiaren banaketa (batez ere barrutietako berokuntza); <input type="checkbox"/> BEGen emisioak, nekazaritza-sektoreko CH₄ emisioak barne sartuta. <p>Gehien bildu eta erabiltzen diren datuak honako hauek dira: eskualde eta toki mailako datu estatistikoak, energia kontsumoaren batez besteko tasak, BEGen emisioen tasak eta datu errealak. <i>'Azkeneko kontsumitzailearen ikuspegia'</i> erabiltzen da, hau da: kontuan hartzen diren emisioak ez dira lurraldean emititzen diren BEGak, baizik eta lurraldean kontsumitzen den energiari dagozkionak. Zifrak determinante batzuetatik hartu eta konputatzen dira (biztanle kopurua, errepideko trafikoa, eta abar), eta baita energia kontsumoaren batez besteko tasetatik ere. Energia kontsumoari buruzko datu erreal gehiago erabiltzen ari dira profil zehatzagoak lortzeko.</p>
 <p>OREGES - Rhône-Alpes Eskualdeko Behatokia 18 rue Gabriel Péri Lyon Frantzia www.oreges.rhonealpes.fr/</p>	<p>OREGES Rhône-Alpes eskualdeko behatokia 2002an eratu zen, helburu hau lortu nahirik: behaketa eta informazio tresna esanguratsu bat eskaintzea, eskualde eta lurralde mailan, herritarrei, tokiko agintaritzei eta energiaren eremuko eragileei.</p> <p>Zuzendaritza Batzordearen presidentzia Estatuak eta Eskualdeak konpartitzen dute, eta Rhône-Alpes Eskualdeko Kontseiluak eta ADEMEK finantzatzen dute. Behatokiaren lana bi erakunde teknikok gauzatzen dute: Rhônalménergie-Environnement (2002az geroztik) eta AIR Rhône-Alpes (2009az geroztik) erakundeak.</p> <p>Erakundeak airearen kalitaterako, klima-aldaketarako eta energiarako eskualdeko plana garatu zuen (SRCAE), eskualdeko kontseiluak eta estatu nazionalaren eskualdeko ordezkariak diseinatutakoaren arabera. Behatokia arduratzen da eskualdeko plan horren inpaktuak monitorizatzeaz.</p>

 <p>METROBS - Klima Aldaketaren Metropoliko Behatokia C/62, núm 16 - 18 Zona Franca, Bartzelona, Espainia www.amb.cat/web/medi-ambient/</p>	<p>METROBS 2014an eratu zen, PSAMB 2014-2020 planaren testuinguruan (Bartzelonako Metropoli Eremuko Jasangarritasun Plana).</p> <p>Jasangarritasun Planaren ikuspegia da Bartzelonako Metropoliaren estatusa sendotzea jasangarritasun irizpideak dituzten politiken inplementazioaren adibide eredugarri gisa, ingurumenaren eta biodibertsitatearen babesa sustatuz eta klima-aldaketa motelduz eta berari egokituz, hiriko herritarren bizi-kalitatearen hobekuntza bermatzeko xedez.</p>
 <p>Carlow Kilkenny Energiaren Agentzia Kilkenny Research and Innovation Centre, Burrell's Hall, St Kieran's College, Kilkenny, Irlanda www.energyhub.ie</p>	<p>Energyhub.ie 2015ean eratu zen, eta Irlandako Errepublikako hego-ekialdeko eskualdeari ematen dio zerbitzua. Eskualdeko Behatokiak zerbitzu hauek eskaintzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Datu energetikoak biltzea eta aztertzea bi tokiko agintaritzarentzat. <input type="checkbox"/> Energia jasangarrirako ekintza planak (EJEPak) Klima eta Energiarako Alkateen Itunarentzat. <input type="checkbox"/> Emisioen oinarriko inbentarioa kalkulatzeko. <input type="checkbox"/> Energiaren monitorizazioa, egiaztapena eta kudeaketa (EMI).
 <p>ROECC - Energia, Ingurumen eta Klimaren Behatokia - Bulgaria 139 Ruski Bld, 4th Floor, P. O. Box 364, Plovdiv, Bulgaria www.observatory.eap-save.eu/</p>	<p>Plovdiveko Energia Agentziak (EAP) Energia, Ingurumen eta Klimaren Eskualdeko Behatokia eratu du (ROECC) ekialdeko erdialdeko eta hego-ekialdeko eskualdean, helburu honekin: tokiko agintaritzeari laguntzea tokiko ekintzen garapen, monitorizazio eta ebaluazioan, Europako 20-20-20 helburuak eta beste helburu nazional batzuk lortzeko xedez.</p> <p>Bulgariako hogeita sei udalerrri parte hartzen ari dira Klima eta Energiarako Alkateen Itunean. Horietatik, bederatzita udalerririk asmoa dute airearen kalitatearen monitorizazioa eta kudeaketa hobetzeko.</p>
 <p>EAZK – Zlin Eskualdeko Energiaren Agentzia Třída Tomáše Bati 21, Zlin, Txekiar Errepublika www.eazk.cz</p>	<p>2015ean, Zlin Eskualdeko Kontseiluak Eskualdeko Energiaren Monitorizaziorako Zentroa eratu zuen, Energiaren Eskualdeko Behatoki gisa, Txekiar Errepublikaren baitan.</p> <p>Monitorizazio zentroak Zlin Eskualdeko Energiaren Agentziaren atal gisa funtzionatzen du (EAZK). Monitorizazio zentroa eratzea, haren egitura garatzea eta epe luzerako helburuak zein helburu espezifikokoak jartzea lagungarria izango da energiaren kudeaketa lehenago hobetzeko eta garatzeko Zlin eskualdeko udalerrietan.</p> <p>Monitorizazio zentroa erakunde ofizial bat da. Beraren bidez, Zlin eskualdeko energia kontzeptua monitorizatu daiteke eta eraginkortasun handiagoz inplementatu, eta gisa beren jardun daiteke eskualdeko eta udalerrietako energia planekin.</p>



Energikontor
Norr



Energiluppen

Kungsgatan 46,

Luleå,

Suedia

www.energiluppen.se

Energiluppen erakundeak ondoren adierazitako zerbitzuak eskaintzen dizkie Norrbottengo 14 udalerriri eta Västerbottengo 15 udalerriri:

- Tokiko eta eskualdeko datu energetikoei eta BEGei buruzko datuak;
- Tokiko eta eskualdeko energia eta klimari buruzko politika eta neurrien jarraipena egiteko erabil daiteke;
- Lagungarria da tokiko interes-taldeentzat, klima eta energiari buruzko estrategiak eta neurriak definitzerakoan;
- Eskualdean txertatuta dago eta beraren sostengua da, eta ekarpen esanguratsua egiten dio eskualdeko garapenaren arrakastari;
- Datu energetikoak biltzea eta aztertzea bi tokiko agintaritzarentzat;
- Energia jasangarrirako ekintza planak (EJEPak) Klima eta Energiarako Alkateen Itunarentzat;
- Emisioen erreferentziako inbentarioa; *eta*
- Energiaren monitorizazioa.



udalsarea21
Energy network of municipalities for sustainability
red network of municipalities for sustainability

Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea

Urkixo Zumarkalea,

36- 6. solairua 48011 - Bilbo

(Bizkaia),

Espainia

www.udalsarea21.net

Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea, lankidetzeta eta koordinaziorako foro bat da, zeregintzat hartzen duena Tokiko Agenda 21ak euskal udalerrietan bultzatzea eta ekintza planen inplementazioa gidatzea. Ihobe – Euskal Ingurumen Agentziak, sarearen idazkaritza tekniko gisa, tokiko ekintza planak ebaluatzen laguntzen du, eta udalerririk jasangarritasunaren bidean egindako aurrerapenak monitorizatzen dituzten adierazleak kalkulatzeko laguntzen du. Informazio hori EAEko Tokiko Jasangarritasunaren Behatokian biltzen da.

Energiaren Euskal Erakundea – EEEk irizpide eta datuak eskaintzen ditu energia jasangarriaren alorreko ekintzetarako.

Beste adierazle batzuen artean, behatokiak energiaren erabilera eta BEGen emisioak neurtu edo kalkulatzeko udalerrietan. Inbentarioa aldizka eguneratu eta hobetu da, eta orain bete egiten ditu Klima eta Energiarako Alkateen Itunaren betekizunak.



REGIONE LIGURIA

Liguria Eskualdeko Energia eta Ingurumenaren Behatokia

Ingurumen Saila– Aire, Klima eta

Hondakinen Kudeaketa Sektorea,

Liguria Eskualdea, Via D'Annunzio

111, 16121 Genoa, Italia

www.banchedati.ambienteinliguria.it

1997an eratua Italiako iparraldeko Liguria eskualdeari zerbitzua emateko, Eskualdeko Behatokiak zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- BEGen emisioen monitorizazioa;
- Airearen kalitatearen planaren jarraipena; *eta*
- Balantze energetikoak kalkulatzeko zenbait mailatan (eskualdea, probintzia eta udalerria).

D4Aren esparruan, behatokia aplikazio bat garatzen ari da behatokia Alkateen Itunaren ekimenarekin zuzenean konektatzeko (emisioen erreferentziako inbentarioa eta emisioen monitorizaziorako inbentarioa).

Behatokiaren jabea Liguria eskualdea da, eta beste bazkide garrantzitsu batzuk dira IRE SpA, ARPAL (Liguria Eskualdeko Ingurumen Babeserako Agentzia) eta Liguria Digitale SpA (IKT adituak).

 <p>Kent Konderriko Kontseilua Ingurumen Saila, County Hall, Maidstone, Kent, Erresuma Batua www.kent.gov.uk/</p>	<p>Kenteko datuen behatokia lehenetasunez txertatu da Kenteko ingurumen estrategian. Horrek eta estrategia Kenteko udal agintaritzaren guztien adostasuna izateak sostengatzen dute behatokiaren epe luzearako iraupena.</p> <p>Aliantzak zenbait erronka identifikatu ditu ingurumenaren alorrean, eta horri lotutako ekonomia- eta osasun-eraketak alorrean ere, honako hauek barne sartuta: airearen kalitatea, energia, garraioa, ura, baliabideak, fenomeno meteorologiko larriak, lurrunaren erabilaren aldaketa eta biodibertsitatea.</p> <p>Sektore publikoaren baliabideak gero eta urriagoak direnez, inoiz baino garrantzitsuagoa da segurtatzea erabaki, politika eta proiektu bakoitzak baduela ebidentzian oinarritutako justifikazioa..</p>
 <p>Turingo Metropoli Hiriko Energiaren Behatokia Corso Inghilterra 7, Turin, Italia www.cittametropolitana.torino.it/cms/ambiente/risorse-energetiche/osservatorio-energia</p>	<p>2014an eratua Turingo Metropoli Hiriaren eremuari zerbitzua emateko, Eskualdeko Behatokiak honako hau eskaintzeko ardura du:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Metropoliaren lurraldeko balantze energetikoa – txostenak egiten ditu bi urtetik behin; <input type="checkbox"/> Tokiko agintaritzekin eta datuen hornitzaileekin kooperatzea, datuak trukatzeko; <input type="checkbox"/> Laguntza teknikoa eskaintzea tokiko agintaritzei euren EJKEPak garatzeko eta monitorizatzeko; <i>eta</i> <input type="checkbox"/> Tresna eta web-GIS erremintak garatzea, udalerriei laguntzeko eraikin publikoen eta argiteriaren kontsumo energetikoaren monitorizazio eta ebaluazioan. <p>Behatokia Piemonte eskualdearen laguntzarekin funtzionatzen ari da orain.</p> <p>Behatokiak datuak aurkezteko forma berritzaileak bilatzen ditu etengabe.</p> <p>Behatokiak online tresna bat inplementatu zuen datu energetikoak modu irekian eskaintzeko eskualdeko 315 udalerriei, 2000-2013 garaian.</p>
 <p>ORECA, Provence-Alpes-Côte-d'Azur Eskualdeko Behatokia 27 place Jules Guesde, Marseilla, Frantzia www.oreca.regionpaca.fr/</p>	<p>ORECA Provence-Alpes-Côte d'Azur – Energia, Klima eta Airearen Eskualdeko Behatokiaren helburua da datuak eta informazioa eskuratzeko energiaren alorrean lan egiten duten gizabanako eta erakundeei.</p> <p>Behatokiaren helburu nagusia da 2013an eskualdean abiatu zen klima, aire eta energiaren plangintzaren lorpen mailaren jarraipena egitea. Airearen kalitate, klima eta energiari buruzko datu-base mardul bat eratu du, eta udalerrri mailako datuak eskaintzen ditu.</p>

 <p>LIG'AIR - Centre Eskualdeko Airearen Kalitatearen Behatokia</p> <p>260 avenue de la Pomme de Pin, Saint-Cyr-En-Val, Frantzia www.ligair.fr/</p>	<p>Energiaren eta BEGen Emisioen Eskualdeko Behatokia gidatzen dutenak dira ADEME (Frantziako Ingurumen eta Energiaren Kudeaketarako Agentzia), Eskualdeko Kontseilua eta DREAL (ingurumen, plangintza eta etxebizitzaz eskualdean arduratzen diren estatuko zerbitzuak). Lig'Air, Centre-Val de Loire eskualdeko airearen kalitatea monitorizatzeko sarea behatokiak arduratu da 2012az geroztik.</p> <p>Behatokiaren lau helburuak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Energiaren ekoizpen eta kontsumoari eta BEGen emisioei buruzko informazioa bilatzea, biltzea, aztertzea eta banatzea. <input type="checkbox"/> Politika publikoei laguntzea, eskualdeko plan energetikoen adierazle nagusiak definitzearen bitartez. <input type="checkbox"/> Tokiko baliabide, behar eta kontsumo energetikoari buruzko azterlanak egitea. <input type="checkbox"/> Bazkide eta eskualdeko eragile nagusiak biltzen dituen sarea bat kudeatzea, eskualdeko energiaren eta BEGen emisioen informazioa konpartitzeko.
 <p>OPTEER, Franche-Comté Eskualdeko Behatokia</p> <p>15 rue Mégevand, Besançon, Frantzia www.opteer.org/</p>	<p>OPTEER behatokia informazio-tresna bat da, Franche-Comté eskualdeko energia-fluxuen alorrean lan egiten duena.</p> <p>Behatokiak hauxe monitorizatzen du:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Energia primarioaren kontsumo eta energiaren ekoizpena (iturri berriztagarriena eta ez-berriztagarriena), <input type="checkbox"/> BEGen emisioak (Kyotoko protokoloan aipatutako gas guztiak). <input type="checkbox"/> Airearen kalitatea. <p>Tokiko ekimenak monitorizatzen ditu, BEGen emisioetan eta airearen kalitatean izan dezaketen inpaktua ebaluatzeko. Klima-aldaketaren inpaktuak ez dira sartzen behatokiaren jardueraren eremu teknikoan.</p> <p>Datuak eskualde osorako kudeatzen dira, udalerrri mailan, eta honako hauek hartzen dituzte barne:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Datu sozial eta ekonomikoak. <input type="checkbox"/> Mugikortasunari buruzko datuak (lanerako joan-etorriak, aisialdia, eta abar.) <input type="checkbox"/> Etxebizitza eta eraikinei buruzko datu zehatzak. <p>Datu horiek datu-baseetatik eta inkestetatik hartzen dira, edo modeloen bidez kalkulatu dira informatikoki.</p>
 <p>ALTERRE Alterre Bourgogne-Franche-Comté</p> <p>La Bourdonnerie, 2 allée Pierre Lacroute, 21000 Dijon, Frantzia www.alterrebourgognefranchecomte.org/</p>	<p>Alterre Bourgogne-Franche-Comté-ren helburua da gizartearen eta ingurumenaren arteko balantzea hobetzen laguntzea, garapen jasangarria sustatzearen bitartez.</p> <p>Agentziak lau helburu estrategiko ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Kontzientzia, informazioa eskaintzearen eta baliabideen zentro bat izatearen bitartez. 2. Kultura konpartitu bat eraikitzea eta garapen jasangarriaren gaien konplexutasunari heltzea prestakuntza, heziketa eta kontzientziazioaren bitartez. 3. Jardunbide arduratsuen inplementazioa sustatzea, eragileei euren eremuetan laguntzearen bitartez. 4. Etorkizuneko gaiak eta erronkak plazaratzea, ikuspegi prospektibo eta zeharkakoak garatzearen bitartez. <p>ALTERREK honako hauekin lan egiten du: tokiko agintaritzak, elkarteak, erakunde sozial eta profesionalak, gobernuak, konpainiak eta hezkuntzaren alorreko profesionalak. Horretarako, heziketa-tresnak eta erabakiak hartzen laguntzeko tresnak eskaintzen ditu, eta baita laguntza tekniko eta metodologikoa ere.</p>



Nord Pas-de-Calais Eskualdea

11/19 rue de Bourgogne,
Loos-en-Gohelle,
Frantzia
www.observatoire-climat-npdc.org

Nord-Pas de Calais Klimaren Behatokia 2012an eratu zen. Gaur egun, kontsideratzen ari da Picardie eskualdeko klimaren behatokiarekin batera lan egiteko aukera, Hauts-de-France eskualde berri osoa bateratuz.

Eskualdeko Behatokiak zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Datuak biltzea, prozesatzea eta aztertzea;
- Datuekin zerikusia duten gaiei buruzko lan-taldeak hartzea, bazkideen sarearen baitan; *eta*
- Datuak hedatzea behatokiak helburutzat hartzen dituen taldeei, honako hauek barne sartuta: bazkideak, publikoak, interes-talde ekonomikoak eta irabazi-asmorik gabekoak, haututako ordezkariak, publiko orokorra eta prentsa.

Behatokiko bazkide diren erakundeen artean honako hauek daude:

- Frantziar Estatuko ordezkaria (DREAL);
- Nord-Pas de Calais Eskualdeko Kontseilua;
- Pas-de-Calais Departamentuko Kontseilua;
- Nord Departamentuko Kontseilua;
- ADEME (Frantziako Ingurumen eta Energiaren Kudeaketarako Agentzia).

Behatokiaren helburu nagusiak honako hauek dira:

- Informazio praktiko eta kuantifikatua eskaintzea erabakiak hartzen dituzten organoei, batez ere eskualde azpiko mailan;
- Politika publikoaren monitorizazioa erraztea; *eta*
- Eztabaida eta trukerako foro gisa funtzionatzea klima- eta energia-behatzaileen sarearen baitan.



Reunion Uharteko Behatokia

109 bis rue Archimbaud,
Saint-Pierre,
Reunion Uhartea,
Frantzia
www.observation.energies-reunion.com/

SPL Énergies Réunion erakundea 2013ko uztailean eratu zen. Bere ardura da tokiko agintaritzari laguntzea energiarekin zerikusia duten gaiei buruzko proiektuen garapenean.

Bere interes-arloen artean, honako hauek daude: eskari energetikoaren kontrola, energia berriztagarria, behaketa, gobernantza, informazioa eta sustapena.

Énergies Réunion erakundeak balantze energetikoak eta adierazle fidagarriak eskaintzen ditu, jakintza eta behaketa aldetik. Horrekin zerikusia duten ekintzak gauzatzen ditu, hala nola azterlanak, ustiapena, ekoizpena, kudeaketa eta prestakuntza.

Behatokiak energiari buruzko informazioa ematen du eta kontzientziatu ere egiten du, nazioarteko lankidetzari laguntzeaz batera.



Greziako Energiaren Behatokiaren Ganbera Teknikoa

Nikis 4, 105 63, Atenas, Grezia
www.portal.tee.gr/portal/page/portal/SCIENTIFIC_WORK/grafeio_symfonou/Tab9

Maramures Konderriko Kontseiluak Energiaren Kudeaketarako Eskualdeko Agentzia eratu zuen 2009an, Energia Adimendunaren Europar proiektuaren laguntzarekin. Agentzia eratu zen eraginkortasun energetikoa eta energia-iturri berriztagarriak konderri mailan jorratzeko. Horri begira, agentziak zeregin hauek betetzen ditu.

- Greziako tokiko agintaritzari laguntzea energiaren plangintzan, batez ere Klima eta Energiarako Alkateen Itunaren sinatzaileei (CoM ekimena);
- Datu energetikoak bildu eta aztertzen ditu eta udalerriei eskuratzen dizkie; *eta*
- Emisioen erreferentziazko inbentarioak eta monitorizaziorako inbentarioak garatzen ditu.

TCG erakunde juridiko nazional publiko bat da, eta baita erakunde profesional bat ere, Greziako estatuaren aholkulari tekniko ofizial gisa funtzionatzen duena. Halaber, TCG Alkateen Itunaren koordinatzailea da.

Behatokirik ez duten ENERGeek Watcheko kideak

Behatokirik gabeko kideak	Deskribapena
 <p>AMEMM - Maramures Energiaren Agentzia Str. Gheorghe Șincai, 46 Maramureș, Errumania www.amemm.ro/</p>	<p>Maramures Konderriko Kontseiluak Energiaren Kudeaketarako Eskualdeko Agentzia eratu zuen 2009an, Energia Adimendunaren Europar proiektuaren laguntzarekin. Agentzia eratu zen eraginkortasun energetikoa eta energia-iturri berriztagarriak konderri mailan jorratzeko. Horri begira, agentziak zeregin hauek betetzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Energia jasangarriaren kontzeptua eta energiaren kudeaketaren printzipioa sustatzen ditu hauen artean: tokiko agintaritzak, hezkuntza- eta osasun-erakundeak, enpresak; <input type="checkbox"/> Europako politika energetikoa sustatzen du toki, eskualde eta nazio mailan; <input type="checkbox"/> Energia berriztagarrien eta eraginkortasun energetikoaren merkatua sustatzen du toki mailan; <input type="checkbox"/> Energiaren erabiltzaileen jokabidea aldatzen du.
 <p>Zipreko Energiaren Agentzia 10-12 Lefkonos Street, Nikosia, Zipre www.cea.org.cy/Home.html</p>	<p>Zipreko Energiaren Agentzia irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko bat da, energia berriztagarriak, energiaren aurrezpena, energiaren erabilera arrazionala eta garraio jasangarria sustatzeko xedez eratu.</p> <p>Zipreko Energiaren Agentziak helburu hauek ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Informazioa eskaintzea eta kontzientziazio publikoa lortzea; <input type="checkbox"/> Prestakuntza eta heziketa profesionala eskaintzea; <input type="checkbox"/> Tokiko, Europako eta nazioarteko lankidetzak bultzatzea; <input type="checkbox"/> Ikerketari eta garapenari laguntzea; <input type="checkbox"/> Ingurumena babestea; <input type="checkbox"/> Tokiko agintaritzekin kooperatzea EJEpen garapen eta inplementazioan, Alkateen Itunaren eta <i>Uharten Hitzarmenaren</i> eremuan.
 <p>EREN - Gaztela eta Leon Eskualdea Energia Sails, Avda. Reyes Leoneses, 11 León, Espainia www.energia.jcyl.es/</p>	<p>EREN Espainiako Gaztela eta Leon Eskualdeko Energiaren Agentzia publiko da.</p> <p>Agentziak enpresa eta ordezkari sozialekin lan egiten du energiaren eraginkortasunarekin zerikusia duten gaietan, energia berriztagarriak eta energiaren erabilera eraginkorra sustatzearen bitartez. Agentziak kontuan hartzen du ingurumen-balantzerik onena, eta, hortaz, eskualdeko garapen jasangarriaren alde egiten du.</p>

DATA4ACTION Datuak eskuratzeari buruzko gidaliburua

Beste behatoki batzuk	Deskribapena
<p>AEEPM</p> <p>Bukaresteko Energia eta Ingurumen Agentzia</p> <p>www.managenergy.ro</p>	<p>Bukaresteko Tokiko Energia Agentzia (Agentia pentru Eficienta Energetica si Protectia Mediului Bucuresti – AEEPM) erakunde juridiko independente eta apolitiko bat da.</p> <p>Agentziaren helburuak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Tokiko komunitateei jasangarriagoak izaten laguntzea, energiaren kudeaketa hobetzearen bidez; <input type="checkbox"/> Europako beste agentzia batzuekin lan egitea, jakintza eta jardunbide egokiak trukatzeko; <input type="checkbox"/> Tokiko interesak sustatzea eskualde, nazio, Europa eta nazioarteko mailan.
<p>BSREC - Itsaso Beltzeko Energiaren Ikerketarako Zentroa</p> <p>www.bsrec.bg</p>	<p>Itsaso Beltzeko Energiaren Ikerketarako zentroa gobernuz kanpoko erakunde bat da, interes publikokoa, 2007an eratu zena. Zentro hau Europako Batzordearen eta Itsaso Beltzaren inguruko herrialdeen ekimenez 1995ean eratu zen Itsaso Beltzeko Eskualdeko Energia Zentroaren ondorengoa da. BSERC Sofian dago erregistratuta -Bulgaria-, legedi nazionalaren arabera.</p> <p>BSERCK energiarekin zerikusia duten jardueren zentro gisa funtzionatzen du, eta bere helburua da Itsaso Beltzaren inguruko herrialdeen eta EBren arteko lankidetzaren garatzea, energiaren alorrean. Zentroa lankidetzaren estuan aritzen da Itsaso Beltzeko herrialde guztiarekin, joera eta garapen nazionalen buruz ondo informatuta egoteko. Nazioarteko jardueren gain, BSERC modu aktiboan inplikatzeko da Bulgariako gai energetikoetan, Bulgariako energiaren sozietate gisa jardunez.</p> <p>BSERCK badu goi mailako energia-adituen sare zabal bat, zentroari zerbitzuak eskaintzen dizkiona. Horrek lankidetzaren onak ahalbidetzen du energiaren merkatuko eragilearen artean, honako hauek barne sartuta: energiaren sektoreko erakundeak, ministerioak, enpresa publiko eta pribatuak, eta herritarrak, Bulgarian ez ezik Itsaso Beltzeko eskualde osoan ere, eta horrek bermatzen du bete egin daitezkeela energiaren merkatuko eragilearen oraingo beharrak.</p>
<p>Kreta Eskualdeko Energia Agentzia</p> <p>www.crete.gov.gr</p>	<p>1993ko abenduan, Kreta Eskualdeko Eskualdeko Energiaren Agentzia eratu zuen, honako helburu hauek betetzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Eskualdeko politika energetikoaren garapenari laguntzea. <input type="checkbox"/> Europako, Mediterraneoeko eta nazioarteko lankidetzaren sustatzea. <input type="checkbox"/> Aholkularitza-zerbitzu neutralak eskaintzea horren inguruko interesa duten erakundeei. <input type="checkbox"/> Proiektuak, teknologiak, jardunbide onak eta horiei lotutako aplikazioak sustatzea. <input type="checkbox"/> Prestakuntza-programak antolatzea, herritarrak, kontsumitzaileak eta energiaren erabiltzaileak kontzientziatzeko. <input type="checkbox"/> Eskualdeko eta tokiko erakunde batzuek energiaren alorrean gauzatzen dituzten programak eta jarduerak koordinatzea. <input type="checkbox"/> Tokiko agintaritzari laguntzea plangintza energetikoaren alorrean, alkateen Itunaren eskualdeko koordinatzaile gisa.

<p>CODEMA</p> <p>Dublin Hiriko Energiaren Kudeaketarako Agentzia</p> <p>www.codema.ie</p>	<p>Codema Dublingo Energia Agentzia da. Dublin Hiriko Udalak eratu zuen 1997an, irabazi-asmorik gabeko sozietate mugatu gisa, Europar Batasunaren SAVE II Programaren esparruan.</p> <p>Irlanda osoan eratu ziren 14 tokiko energia agentzietako bat izan zen, eta, gainerakoek bezala, xedetzat hartu zuen tokiko agintaritzei laguntzea euren errendimendu energetikoaren helburuak betetzen, garapen profesionalaren bidez eta jardunbide egoki eta onenak ezartzearen bitartez.</p> <p>CODEMAk erakunde hauekin batera lan egiten du: Dublin Hiriko Udala, Dún Laoghaire–Rathdown, Fingal Konderriko Kontseilua eta Dublingo Hegoaldeko Konderriko Kontseilua.</p>
<p>Bartzelonako Diputazioa</p> <p>www.diba.cat</p>	<p>Bartzelona Probintziako Diputazioa Kataluniako (Espainia) instituzio publiko bat da, zerbitzu tekniko, ekonomiko eta teknologikoak eskaintzen dizkiena Bartzelona probintziako 311 udalerriei. Gainera, udale zerbitzuak koordinatzen ditu eta udalez gaindiko izaera duten zerbitzu publikoak antolatzen ditu.</p> <p>Bartzelonako Diputazioak Xarxa de Ciutats i Pobles cap a la Sostenibilitat sarearen presidentzia dauka eta bere idazkaritza teknikoa da. Bartzelonako Diputazioa izan zen Alkateen Itunaren Europako lehen lurraldeko erakunde koordinatzailea, 2008an..</p>
<p>Mälardalengo Energia Agentzia</p> <p>www.energikontor.se/</p>	<p>Mälardalengo Energia Agentziak garapen jasagarria sustatzen du Mälarden eskualdean.</p> <p>Agentziak udal, agintaritza publiko eta enpresekin kolaboratzen du -batez ere-, bai toki mailan eta bai Europa mailan.</p> <p>Energiari eta ingurumenari buruzko kontzientziazioa sustatzen laguntzen du, eta kostu aldetik eraginkorrak diren irtenbideak eskaintzen ditu, jakintza aplikatuarekin, existitzen diren betekizun eta beharrei egokituta.</p>
<p>ILSpA-Infrastrutture Lombarde-Lombardia Eskualdeko Energia Agentzia</p> <p>www.ilsa.it</p>	<p>SiReNa 2007an eratu zen, energiaren kontsumoa, ekoizpena eta emisioak eskualde osoan monitorizatzeko, zeren kontsideratzen baita horiek funtsezkoak direla ingurumen-lehiakortasun eta -jasagarritasunerako.</p> <p>Factor20 proiektuari egindako ekarpenari esker, SiReNa mailaz igo eta SiReNa20 bihurtu zen: online sistema publiko bat, datu energetikoak kudeatzea eta aztertzea ahalbidetzen duena eskualde, probintzia eta udalerrri mailan. Halaber, beraren bidez monitorizatu egin daitezke Lombardia eskualdeak energia-iturri berriztagarriei, eraginkortasun energetikoari eta BEGen emisioen murrizketari buruz planteatuta dituen helburuak eta etorkizunerako eszenarioak itxuratu daitezke. Horren guztiaren bidez, laguntza ematen zaio eskualdeari aukeraketa onenak egin ditzan 2020eko helburuei begira.</p> <p>SiReNa kudeatzen duena Infrastrutture Lombarde S.p.A. erakundearen Energia Saila da, Lombardia Eskualdearen izenean, bera baita Behatokiaren jabea.</p>

DATA4ACTION Datuak eskuratzeari buruzko gidaliburua

<p>Medwayko Kontseilua www.medway.gov.uk/</p>	<p>Medway Ingalaterrako Hego-ekialdeko konurbazio bat da, agintaritza unitarioa duena.</p> <p>2014 urtean 274,015 biztanle zituen. Agintaritza unitarioa 1998an eratu zen, Rochester-upon-Medway hiria Gillingham Borougheko Kontseiluarekin eta Kent Konderriko Kontseiluaren zati batekin elkartu zenean Medwayko Kontseilua eratzeko, Kent Konderriko Kontseilutik bereizitako agintaritza independente unitario gisa.</p>
<p>Savona Probintzia www.provincia.savona.it</p>	<p>Savona probintzia (italiera: provincia di Savona; liguriera: provinsa de Sann-a) Italiako Liguria eskualdeko probintzia bat da. Bere hiriburua Savona da, 61,529 biztanlerekin.</p> <p>Probintziak 280,707 biztanle ditu, guztira.</p>
<p>Treviso Probintzia www.provincia.treviso.it</p>	<p>Treviso probintzia (italiera: Provincia di Treviso) Italiako Veneto eskualdeko probintzia bat da. Bere hiriburua Treviso da.</p> <p>Probintziaren iparraldean Belluno dago, mendebalean Vicenza, hego-mendebaldean Padua, Venezia hego-ekialdean eta Friuli-Venezia Giulia ekialdean.</p>
<p>Korsikako Eskualdeko Kontseilua www.aauc.corsica/L-Observatoire-Regional-de-l-Energie-et-des-Gaz-a-Effet-de-Serre-OREGES-de-Corse_a4.html</p>	<p>Behatokia azterketarako eta jakintzaren trukerako lankidetzatresna bat da, energia eta klimaren alorreko zenbait eragile biltzen dituena. Bere sorreraren arrazoia da leku zentralizatu bat behar zela datu energetikoak aztertzeko, ustiatzeko, formateatzeko eta guztientzat erabilgarria den forma batean eskaintzeko.</p> <p>Behatokiak hiru helburu nagusi ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Eskualdeko eta azpieskualdeko egoerari buruzko ezagutza hobetzea eta garatzea, kontsumo energetikoaren eta berotegi-efektuko gasen emisioen ikuspuntutik: datuen bilketa, adierazleak, ebaluazio kuantitatibo erregularrak, eta azterlan espezifikoak, <input type="checkbox"/> Truke eta aholkularitzarako leku bat izatea, aire, energia eta klimaren alorreko eragileen arteko lankidetzat indartzeko (eragile pribatuak, irabazi-asmorik gabekoak, boluntarioak), hausnarketa bateratua bideratzeko eta lankidetzat zein ekintzat bateratuko programak sustatzeko. <input type="checkbox"/> Eskualdeko politika energetikoei laguntzea, azterketak egiteko eta erabakia hartzeko tresnak garatuz: lurraldeko diagnostikoa, tokiko politiketarako sostengua, SRCAEaren jarraipena eta Klima eta Energia Planetarako sostengua.



Energiari buruzko datuak funtsezkoak dira bai ekonomiaren lehenetsuneko sektoreetan dauden joerak identifikatzeko, bai politika energetikoak bideratzeko eta bai eraginkortasun energetikoaren hobekuntza eta energia berriztagarrien hedakuntza segurtatzeko.

Datuak Eskuratzeari buruzko Gidaliburu hau eragile hauentzat garatu da, lehenetsunez:

- ❑ **Agintaritza Publikoak**, tokiko datu energetiko zehatzak hobeto eskuratzeko bideak bilatzen ari direnak, energia jasagarriaren plangintzan erabiltzeko;
- ❑ **Plangintza Energetikoaren Bideratzaileak**, agintaritza publikoen eta datu-hornitzaileen artean kolaboratzeko eredu aurreratuak garatzen lagundu nahi dutenak; adibidez: Eskualdeko Datuen Zentroa edo Energiaren Behatokia; eta
- ❑ **Datu Energetikoen Hornitzaileak**, rol positiboa jokatu nahi dutenak Eskualdeko eta Tokiko Politika Energetikoen garapen eta inplementazioan.

Jakin ezazu gehiago DATA4ACTIONi buruz, gure argitalpenen liburutegia eta ekitaldiak ere ezagutzeko, gure webgunea bisitatuz:

www.data4action.eu